ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

HORNIKUNTZA-KONTRATUA
Prozedura irekia

Espediente zk.:003/2024

Objektua: "Haurreskolak Partzuergoaren zentroak tresneriz hornitzea" helburu duen esparru-akordioa.

Edukia:

Kontratuaren klausula espezifikoak.

Baldintza orokorrak.

Eranskinak.

Aurkibidea

KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK 5
I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK 5
1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA 5
2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK 5
3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA 6
4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA 6
5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK 6
6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO BETEARAZTEKO EPEA. LUZAPENA. 7
7.- PUBLIZITATE GASTUAK 7
8.- BERMEAK 7
9.- ASEGURUAK 8
10.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA 8
11.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK 8
12.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN, GIZARTE EDO LAN ARLOETAKO BESTE BETEBEHAR BATZUK 9
13.- ZIGORRAK 11
14.- AZPIKONTRATAZIOA 11
15.- ZERBITZUA EMAN IZANA EGIAZTATZEA, HARRERA ETA BERME-EPEA 12
16.- KONTRATUA ALDATZEA 12
17.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK 13
18.- KONTRATUAREN OBJEKTU DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK 13
II.- ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK 14
19.- ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ETA ERREGISTROAK 14
20.- IZAPIDETZEA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA 15
21.- KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA ETA BALIABIDEAK ADSKRIBATZEA 15
22.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK 16
23.- BERDINKETA HAUSTIEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK 20
24.- GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA 20
25.- ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK 22
26.- PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK 22
III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK 24
27.- KONTRATUA LAGATZEA 24
28.- GIZARTEKO, INGURUMENEKO ETA PROZEDURAN ETA KONTRATUAN SARTUTAKO BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEN INGURUKO ALDERDIEN JARRAIPENA EGITEKO KOADROA 24
BALDINTZA OROKORRAK 25
I.- KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA ALDERDI OROKORRAK 25
1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA 25
2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK 25
3.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA 25
4.- HAINBAT ARLOTAKO INFORMAZIOA: FISKALITATEA, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ENPLEGUA BABESTEA, LAN-BALDINTZAK, LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN GIZARTERATZE ETA LANERATZEA, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN KOPURU EDO EHUNEKO ZEHATZ BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRA, DATUEN BABESA ETA LEHIAREN DEFENTSA 26
5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, AURRETIKO IZAPIDETZA ETA BALIO ZENBATETSIA 26
6.- KONTRATUAREN PREZIOA ETA GEHIENEKO AURREKONTU MUGATZAILEA 27
7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA 27
8.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN BETEARAZPEN-EPEA EDO IRAUPENA. LUZAPENA. 27
9.- BERMEAK 28
10.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK 28
II.- LIZITAZIOA 31
11.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK 31

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

12.- ESKAINTZAK AURKEZTEA 32
13.- "A" GUTUN-AZALA: «AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN DEKLARAZIOA» 35
III.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA 37
14.- ESKAINTZAK EZ ONARTZEKO ARRAZOIAK ETA ARGIBIDEAK ESKATZEA 37
15.- AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA 37
16.- BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEN BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA 38
17.- FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA 39
18.- ESKAINTZAK EBALUATZEA 39
19.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK 40
IV.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA 41
20.- ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA 41
21.- ADJUDIKATU AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA 41
22.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA ADJUDIKAZIOA JAKINARAZTEA 43
23.- KONTRATUA FORMALIZATZEA 43
V.- KONTRATUA BETEARAZTEA 45
24.- KONTRATUAREN JARRAIPENERAKO BATZORDE TEKNIKOA 45
25.- KONTRATUA GAUZATZEA: HORNIDURARI, FABRIKAZIOA DAKARTEN KONTRATUEI ETA EROSTEKO AUKERAREKIN EDO GABE ALOKATZEARI BURUZKO TERMINO ESPEZIFIKOAK. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA 45
26.- EXEKUZIOARI ATXIKI BEHARREKO BITARTEKOAK 49
27.- BETEBEHARRAK LAN ARLOAN, GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOAN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOAN 49
28.- EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK 50
29.- KONFIDENTZIALTASUNA 51
30.- ZIGORRAK 56
31.- PREZIOA ORDAINTZEA 57
32.- KONTRATUA ALDATZEA 59
33.- AZPIKONTRATAZIOA 60
34.- KONTRATUA LAGATZEA ETA ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEAREN OSAERA ALDATZEA 61
VI.- KONTRATUA AZKENTZEA 64
35.- BETETZEA: EMATEA, HARRERA ETA LIKIDATZEA 64
36.- BERME-EPEA ETA BERMEA ITZULTZEA 65
37.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA 66
VII.- INZIDENTZIAK ETA EGINTZEN BERRIKUSPENA 67
38.- INZIDENTZIAK 67
39.- EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA 67
ERANSKINAK 68
LABURPEN-KUADROA ¡Error! Marcador no definido.
I.1. ERANSKINA- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUAREN KALKULUA: KONSTUAK ETA BESTELAKO GASTUAK 69
II.0. ERANSKINA- DATU PERTSONALAK 70
II.1. ERANSKINA-EKAB.OSATZEKO JARRAIBIDEAK 71
II.2. ERANSKINA-BALIABIDEAKADSKRIBATZEKO KONPROMISOA 72
II.3.ERANSKINA-ESKAINTZAN BILDUTAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL IZENDATZEA 73
II.4.ERANSKINA-ABEE FORMALKI ERATZEKO KONPROMISOA 74
II.5.ERANSKINA-ENPRESA TALDE BEREKO ENPRESAK 75
II.6.ERANSKINA-ESKAINTZA / ESKAINTZA INTEGRATZAILEA ZEIN SORTATARAKO AURKEZTEN DUEN: SORTA-KONBINAZIOA 76
II.7.ERANSKINA-JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK 77
III.1.ERANSKINA-ESKAINTZA EKONOMIKOA 78
IV.1.ERANSKINA-FITXA TEKNIKOA AURKEZTEKO EREDUA 81
IV.2.ERANSKINA-HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO HEZKUNTZA PRINTZIPIOAK 84

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

V.1.ERANSKINA-KONTRATUAREN INDARRALDI OSOAN ESKURA IZATEA BESTE ENTITATE BATZUEN KAUDIMENA ETA BALIABIDEAK 85
V.2.ERANSKINA- SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ IZATEA 87
V.3.ERANSKINA-INTERES GATAZKARIK EZAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (IGEA) 88
V.4.ERANSKINA-ZERBITZARIEN ETA HORIEI LOTUTAKO ZERBITZUEN KOKAPENARI BURUZKO ADIERAZPENA 90
VI.1.ERANSKINA- DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA 91

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA

1.1.- Definizioa: Haurreskolak Partzuergoko zentroak tresneriaz hornitzea, muntatzea eta instalatzea (desenbalatzea barne) helburu duen esparru-akordioa. Horretarako, hautaketa-prozesuak enpresa lizitatzaileen ezaugarri orokorrak eta artikuluen banaketa arin eta efizientea egiteko dituzten ahalmenak aztertuko ditu, eta, era berean, eskainitako artikuluen balio kualitatiboak eta ingurumenekoak modu generikoan aztertuko ditu.

Era berean, Haurreskolak Partzuergoak bere zentroetarako tresnak hornitzeko esleitu beharreko kontratuek bete beharreko baldintzak zehaztuko dira.

Esparru-akordioak honako hauek jasoko ditu: enpresen zehaztapena, hornitu beharreko artikuluak eta unitateko prezioak (gehieneko prezioak izango dira), horniduraren beste baldintza orokor batzuk (epea, adibidez), eta esparru-akordio honetatik eratorritako kontratuek bete beharreko oinarrizko baldintzak.

Esleitzen diren kontratu eratorrien bidez, Haurreskolak Partzuergoak material didaktikoaren kalitatea bermatu nahi du Haurreskolak Partzuergoko zentroetan.

1.2.- Hornidura-mota: eskuratzea.

1.3.- Kokatzeko edo instalatzeko lanak barneratzen dira: bai.

1.4.- Kontratuaren indarraldian hornitu diren ondasunen mantenua barneratzen da: bai.

1.5.- Sortatako banaketa: bai.

1.5.1.- Sorta kopurua: 2

1.5.2.- Sorta bakoitzaren objektua ondorengoa da:

1.SORTA: Termoak
2.SORTA: Sukalderako tresneria

1.5.3.- Azpisorta bakoitza kontratu bat da: bai.

1.6.- CPV kodea:

Objektua	Kode nagusia
Nagusia	39221200-9 (sukalderako tresneria)
Bigarren mailako	39221150-3 (termoak)

1.7.- Jarduerak sailkatzeko beste sistema batzuk: ez.

1.8.- Traktua: segidakoa.

Kontratuaren xedea osatzen duten unitateen kopurua zehatz definitzen da: ez.

2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK

Baldintza orokorren 2. klausulan azaltzen direnak eta honako hauek:

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

a) Esparru-akordioaren Administrazio-klausula zehatzen agiria.

b) Esparru-akordioaren Baldintza tekniko zehatzen agiria.

c) Esparru-akordioaren formalizazio dokumentua.

d) Esparru-akordioan oinarritutako kontratuak esleitzeko ebazpena.

3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

3.1.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua hirurogeita hamabi mila eta seiehun eurokoa da (72.600€), %21eko BEZ barne, eta ondorengo urteko ordainketa hauei egotziko zaie:

- 2025 urtea: 15.000 euro + 3.150 euroko BEZ.
- 2026 urtea: 15.000 euro + 3.150 euroko BEZ.
- 2027 urtea: 15.000 euro + 3.150 euroko BEZ.
- 2028 urtea: 15.000 euro + 3.150 euroko BEZ.

Kalkulatzeko kontutan hartu diren kostu eta gastuak **I.1 ERANSKINEAN** daude azalduta.

3.2.-Aurrekontu-aplikazioa: 0000.421.22112 / 0001.422.22112 / 0020.422.22112 / 0048.422.22112/ 0100.422.22112 / 4800.422.22112 / 2000.422.22112.

3.3.- Aurretiko izapidetzea: ez.

3.4.-Gastua kofinantzatua dago: ez.

4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

4.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKLren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera, hirurogei mila eurokoa da (60.000 €), urterokoak honela zatituta:

	2025	2026	2027	2028
1.SORTA: TERMOAK	12.000	12.000	12.000	12.000
2.SORTA: SUKALDEKO TRESNAK	3.000	3.000	3.000	3.000
GUZTIRA	**15.000**	**15.000**	**15.000**	**15.000**

Aurrekoa gorabehera, Haurreskolak Partzuergoak ez du ondasun kopuru jakin bat erosteko betebeharrik, bere beharren mende dagoelako. Beraz, adierazitako zifrak esparru-akordioaren indarraldian zenbatetsitako gastuari dagozkio, eta orientagarria baino ez da, eta ez da loteslea.
Esparru-akordio honetan oinarritutako ondorengo kontratuek zehaztuko dituzte eskuratu beharreko ondasunak, horien kopurua, lekua, entrega-epea eta gainerako baldintza espezifikoak; betiere, baldintza teknikoen agirira eta administrazio-klausula zehatzen agiri honetan jasotako esparru-akordioko baldintza orokorretara egokituko dira.

5.- PREZIOAK ETA ORDAINKETAK

5.1.- Prezioa zehazteko sistema:

Esparru Akordioko loteetan unitateko prezioak (BEZik gabe) gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

Esparru Akordioan oinarritutako kontratuetako loteetan unitateko prezioak (BEZik gabe) gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Prezio hauek izaera maximoa dute. Hori dela eta, gainditzen dituzten eskaintzak baztertuak izango dira.

Enpresa bakoitzak Esparru Akordioaren barruan eskainitako unitateko prezioak gehieneko prezio lotesleak dira, eta ezingo dira handiagoak izan oinarritutako kontratuetan. Era berean, enpresa bakoitzak Esparru Akordioan eskainitako ezaugarri teknikoak gutxienekoak eta lotesleak dira, eta, beraz, ezin izango dira txikiagoak izan Esparru Akordioan oinarritutako kontratuetan.

Prezioak bere barne hartzen du produktuen garraioa. Ondorioz, kontratu honetatik eratorritako erosketetan produktu bakoitzeko ezarritako prezioak soilik ordainduko dira eta ez gainontzeko zerbitzuenak.

PREZIO MAXIMOAK (BEZ barne)

	PREZIO MAXIMOA
1.SORTA: TERMOAK	30€
2.SORTA: SUKALDEKO TRESNAK – MAHAI TRESNAK	7€/unitatea
2.SORTA: SUKALDEKO TRESNAK – ONTZITERIA	15€/unitatea

5.2.- Prezioa ordaintzeko modua: ordainketa bakarra materiala entregatu, muntatu eta instalatu ondoren.

5.3.- Prestalanak daude: ez.

5.4.- Prezioak berrikustea: ez.

5.5.- Eskudirutan ordaintzea eta mota bereko beste ondasun batzuetan ordaintzea: ez.

6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO BETEARAZTEKO EPEA. LUZAPENA.

6.1.- Iraupen osoa edo betearazteko epe osoa edo mugaeguna: Esparru-akordio hau indarrean egongo da lau (4) urtez.

6.2.- Hasiera data: Esparru-akordioa formalizatu eta hurrengo egunean.

6.3.- Kontratuaren luzapena: Ez.

6.4.- Esparru-akordioan oinarritutako kontratuen iraupena: esparru-akordioan oinarritutako kontratu bakoitzak esparru-akordioaren indarraldia amaitu arte iraungo du.

7.- PUBLIZITATE GASTUAK

Ez daude.

8.- BERMEAK

8.1.- Behin-behineko bermea: no.

8.2.- Behin betiko bermea: bai, esleitu diren loteen balio zenbatetsiaren % 5eko zenbatekoarekin, modu proportzionalean kalkulatuta enpresa esleipendunen artean azpilote bakoitzerako, esparru-akordioaren iraupen osorako, SPKLren 108. artikuluan aurreikusitako moduren batean. Berme hori

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

hamar (10) egun balioduneko epean eratu beharko da, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

8.3.- Berme osagarria: ez.

8.4.- Bermeak prezio atxikipenaren bidez eratu ahal izango dira: ez.

8.5.- Harrera partziala bada, bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea eskatu ahal izango du kontratistak: ez.

8.6.- Bermeak honen alde eratuko dira: Haurreskolak Partzuergoa / Consorcio Haurreskolak.

IFZ: P0100385D

9.- ASEGURUAK

Kontratistak nahitaezko aseguruak eduki beharko ditu.

10.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ez dagokio.

11.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratu hau gauzatzeko, izaera sozial, laboral eta etikoko exekuzio-baldintza berezi hauek eskatuko dira. Baldin eta kontratuaren xedeari lotuta badaude, SPKLren 145. artikuluaren zentzuan, zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak ez badira, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarriak badira eta lizitazio-iragarkian adierazten badira.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebehartzat hartuko dira, eta, beraz, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, baldintza horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat har daiteke, aipatutako legearen 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

11.1.- Baldintza sozialak eta enpleguari buruzkoak:

11.1.1.- *Lan-baldintzak betetzea*:

Enpresa kontratistak nahitaez bete beharko ditu lanaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak, eta, bereziki, garatu beharreko prestazioak lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren mende daudenean, kontratistak nahitaez bete beharko ditu dagokion lan-ordenantzaren eta hitzarmen kolektiboaren xedapenak.

Enpresa esleipendunak erantzukizunpeko adierazpenen bidez edo, hala dagokionean, erakunde eskudunen ziurtagirien bidez egiaztatu beharko du kontratua gauzatzean bete direla lanpostuak babesteari, lan-baldintzei eta laneko arriskuen prebentzioari buruz indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak.

Betebehar hori ez betetzea kontratuaren aurrekontuaren % 10erainoko zigorra ezartzea ekarriko duen kontratuaren ez-betetzetzat hartuko da.

Era berean, kontratistak aldian-aldian jakinarazi beharko dio kontratuaren arduradunari lan-arriskuen prebentzioaren arloan ezartzen zaion edozein zehapeni buruz, bai eta haren aurka jarri diren errekurtsoei eta horiei buruzko ebazpenei buruz ere. Informatzeko betebehar hori ez betetzea kontratuaren funtsezko baldintza bat ez betetzea izango da, eta kontratistak kontratua suntsiaraztea ekarriko du, zehapena irmoa denean.

11.1.2.- *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako*:

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Kontratistak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu. 250 langile baino gehiago dituen enpresa kontratistak justifikatu beharko du emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat duela, lege horretan aurreikusitako edukiarekin.

Enpresa esleipendunak bermatuko du ez dagoela ordainsari-diskriminaziorik emakumeen eta gizonen artean (42/2019 Ebazpena, apirilaren 9koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunerako klausulak eta kontratazio publikoan soldata-arrakalaren aurkako neurriak txertatzeko jarraibidea onartzen duen akordioa argitaratzea).

Halaber, igorritako dokumentu guztietan hizkera ez-sexista erabiliko dela bermatuko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez. Lege horren babesean, argitara daitezkeen irudietan, pertsonek ez dute giza duintasun gutxiago edo gehiago izango beren sexuaren arabera, ez eta sexu-objektu huts gisa ere; estereotipo sexistak saihestuko dira, eta sexu-, rol- eta genero-identitatearen dibertsifikazioa bultzatuko da.

11.1.3.- Besterik: ez.

11.2.- Ingurumen arloko baldintzak: bai, baldintza orokorren 28.4 klausulan ezarritakoak.

11.3.- Baldintza etikoak: ez.

11.4.- Hizkuntza arloko baldintzak:

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarritako eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean arututako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago, bai eta hura garatzen duen araudiaren mende ere.

Kontratua gauzatzean, preskripzio teknikoen klausulan ezarritako hizkuntza-baldintza zehatzak bete behar dira.

11.5.- Datuen babesari dagokionez: baldintza orokorren 28.3 klausulan ezarrita daudenak.

11.6.- Berrikuntzaren arloan: ez.

11.7.- Azpikontratistei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketen arloan: baldintza orokorren 28.2 klausulan ezarrita daudenak.

11.8.- Besterik: ez.

Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak <u>azpikontratista guztiei</u> eskatuko zaizkie.

12.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN, GIZARTE EDO LAN ARLOETAKO BESTE BETEBEHAR BATZUK

12.1.- Kontratuaren funtsezko kontratu-betebeharrak, SPKLren 211. artikuluko 1. paragrafoko f) letran aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratua suntsiarazteko arrazoi direnak:

12.1.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan adierazitako exekuzio-baldintza bereziak.

12.1.2.- Kontratua gauzatzeko, II.2 eranskinean ("Baliabideak atxikitzeko konpromisoa") ageri den erantzukizunpeko adierazpenaren koadroan adierazitako bitartekoak atxikitzea, bai eta giza baliabideak eta/edo baliabide materialak ere, baldin eta adjudikazio-prozeduran kaudimen

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

teknikoa edo profesionala betetze aldera halakoen jabetza eta/edo eskuragarritasuna egiaztatu bada.

12.1.3.- Kontratistak berak egin behar ditu kolokazio- edo instalazio-zerbitzuak edo -lanak, kontratuaren klausula espezifikoen 18.1 eta 18.3 klausulen arabera.

12.1.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 klausulan azpikontrataziorako adierazitako baldintzak, baldintza orokorren 33.1 klausularen arabera azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzea eta SPKLren 215.2 artikuluko c) letraren arabera larrialdi edo premia egoera determinatzen duen inguruabarrak egiaztatzea.

12.1.5.- Datu pertsonalen babesari dagokionez, kontratua gauzatzeko kontratistak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren izenean, honako hauek egin beharko ditu:

12.1.5.1.- Baldintza-agiri honetan jasotako xedea betetzea. Datuak xede horretarako laga dira.

12.1.5.2.- Zerbitzarien kokapena eta horiei lotutako zerbitzuak emateko lekua ez aldatzea (hau da, kontratua formalizatu aurretik aurkeztutako deklarazioaren bidez kontratistak adierazitakoari eustea), Kontratazio-organoari aldez aurretik jakinarazi gabe. Beraz, kontratua indarrean dagoen bitartean edozein aldaketa eginez gero, puntu honetan aipatzen den deklarazioan emandako informazioari dagokionez, nahitaez jakinarazi beharko du tratamenduaren arduradunak.

12.1.5.3.- Kontratistak zerbitzariak edo horiekin lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko baliatu duen eskaintzan adierazi duen/dituen azpikontratista/k ez aldatzea, Kontratazio-organoari aldez aurretik jakinarazi gabe.

12.1.5.4.- Kontratazio publikoaren araudian arlo horrekin lotuta aurreikusita dauden guztiak.

12.1.6.- Besterik: bai, ondorengoak:

12.1.6.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 6.1 klausulan ezarritako kontratua gauzatzeko epea edo epemuga betetzea.

12.1.6.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 6. klausulan jasotako epe partzialak betetzea.

Kontratuaren funtsezko betebeharretako edozein ez betetzea **arau-hauste larria** izango da SPKLren 71.2 c) artikuluaren ondorioetarako.

12.2.- Ingurumen, gizarte edo lan arloetako beste betebehar batzuk:

12.2.1.- Ingurumen arloko betebeharrak: bai. Esleipendunak une oro errespetatu beharko du arau-maila desberdinetan (Europar Batasunekoa, Estatukoa, autonomikoa eta tokikoa) aplikatzekoa den legeria, bai lanen hasieran indarrean dagoena, bai kontratuaren indarraldian zehar aldarrikatu daitekeena eta aplikagarria dena. Beraz, kontratuan aurreikusitako lanetan eragina izan dezaketen ingurumen-baldintzak ezagutu beharko ditu. Era berean, bere baliabideak modu eraginkorragoan erabiliko ditu, ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiena bilatuz.

12.2.2.- Gizarte edo lan arloko betebeharrak:

12.2.2.1- Enpresa lizitatzaileek kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa adierazi beharko dute, eta kontratua esleitu ondoren langile horiei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute. Gainera, kontratua gauzatzen den bitartean,

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

12.2.2.2- Beste batzuk: bai. Enpresa kontratistak (eta, hala badagokio, azpikontratistak) 50 langile edo gehiago baditu, plantillaren % 2an desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko betebeharra izango du.

13.- ZIGORRAK

13.1.- Baldintza orokorren 30.1 klausulan aurreikusitakoez gain, zigor gehigarriak ezartzen dira: bai. Administrazioak zigorra ezarri ahal izango du, aldez aurretik ohartarazita eta gertaeren larritasunaren arabera.

Hutsegite larritzat hartuko da kontratu honi lotutako preskripzio teknikoen agirian nahitaez bete beharreko baldintzaren bat ez betetzea. Hutsegite larritzat hartuko da enpresa lizitatzaileek eskainitako aukerako edozein exekuzio-baldintza ez betetzea, baldintza-agiri honetako aurreikuspenen arabera.

Kontratua gauzatzean hiru hutsegite arin pilatzeak hutsegite larria ekarriko du.

Zehazki, honako zigor hauek ezartzen dira:

- Erabilitako elementuak hornitzen badira (fabrikazio berrikoak ez direnak), enpresa arau-hauslea ez da gonbidatuko eta ezin izango du parte hartu esparru-akordiotik eratorritako kontratuetan, eta prezioaren % 50eko zigorra ezartzen da.
- Produktuen horniketa atzeratzen den egun bakoitzeko % 5eko zigorra ezartzen da, horniduraren preziotik kendu beharrekoa.
- Hornikuntza egin ondoren Haurreskolak Partzuergoko edozein zentrok adierazitako akatsik balego, bi asteko epean zuzendu beharko dira. Berandutze-egun bakoitzeko, hornidura-preziotik kendu beharreko % 5eko zigorra ezartzen da.
- Enpresek 24 ordu baino lehen erantzun beharko diote bermepean dagoen edozein gorabeherari. Bermepean dauden konponketen eskulan, baliabide eta materialen gastu guztiak enpresaren kontura izango dira. Berandutze-egun bakoitzeko % 5eko zigorra ezartzen da, hurrengo horniduraren prezioari kendu beharrekoa. Abisua Haurreskolak Partzuergoko zentralak emango du, eta posta elektronikoz edo beste edozein bitarteko idatziren bidez egin beharko da; nolanahi ere, telefono-abisua ere eman ahal izango da.

Zigorrak ezartzeko prozedura zigortuko den gertakariaren jakinarazpen batekin hasiko da, interesdunari entzunaldia emateko, eta organo eskudunaren ebazpen batekin amaituko da.

Enpresa berandutze-egoeran jartzeko, ez da beharrezkoa Administrazioak aldez aurretik agindurik egitea.

Zigor horiek enpresa esleipendunari hornidura-kontzeptuan ordaindu behar zaizkion kopuruen kenkarien bidez ordainduko dira, edo bermearen bidez, SPKLren 194.2 artikuluaren arabera.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo, zigor berriak ezarrita, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

14.- AZPIKONTRATAZIOA

14.1.- Mugak ipini zaizkio azpikontratatzeko aukerari: ez. Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du kontratatzen den prestazioaren zati bat gauzatzea, SPKLren 215. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

14.2.- Operadore ekonomikoek honako informazio eta/edo dokumentazio hau emateko daukaten betebeharra:

a) Prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duten, azpikontratatu nahi duten zatiaren edo zati bakoitzaren ehunekoa, eta azpikontratist(ar)en izena. Informazio hori EKABen II. zatiko D atalean bete beharko dute.

b) Lizitatzaileek nahitaez eman behar dute azpikontratatu nahi dituzten azpikontratista guztien EKAB agiria (II. eta III. zatietako A eta B atalak behar bezala beteta).

c) Kontratua gauzatzeko, kontratistak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren izenean, V.4 Eranskinean adierazi beharko du ea haiei lotutako zerbitzariak edo zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusten duen, bai eta azpikontratistaren edo azpikontratisten izena edo enpresa-profila ere (azpikontratistaren edo azpikontratisten kaudimen-baldintza profesionalaren edo teknikoaren arabera definituta).

15.- ENTREGATZEKO LEKUA, ONDASUNEN EGOERAREN EGIAZTAPENA, HARRERA ETA BERME-EPEA

Haurreskolak Partzuergoaren mendeko zentro guztiak eta bulego nagusiak.

Enpresa kontratistak zuzenean hornituko du ekipamendua haurreskoletan, eta zentroko arduradunak adierazitako kokapenean jarriko dira.

Oinarritutako kontratuen bidezko erosketetan, zerbitzu zentralak enpresa kontratistari entrega-helbideak, entregatu beharreko elementuak eta horietako bakoitzean entregatu beharreko elementu kopurua emango dizkio.

15.1.- Ondasunek kontratuan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea: eragiketa egin duen erosketa-unitateko arduradunaren adostasuna, baldintza orokorren 35.2 klausulan xedatutakoari kalterik egin gabe.

15.2.- Jasotze-epea: materiala entregatzeko gehieneko epea 30 egun naturalekoa izango da. Produktuen horniketa atzeratzen den egun bakoitzeko % 5eko zigorra ezartzen da, horniduraren preziotik kendu beharrekoa.

15.3.- Harrera partzialak daude: orokorrean, ez.

15.4.- Botere adjudikatzaileak beretzat gordetzen du ondasunak jasotzean hauen kalitatea egiaztatzeko ahalmena: bai.

15.5.- Berme-epea: bai, ondorengoa:

Esparru-akordioaren sorta guztien gutxieneko berme-epea 2 urtekoa da.

16.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua aldatzeko aukera: bai, esparru-akordioko lote bakoitzak sorrarazten dituen kontratu oinarrituak aldatu ahal izango dira, betiere honako kasu honetan:

1.- Esparru-akordioa aldatu ahal izango da kontratuak aldatzeko arau orokorren arabera. Nolanahi ere, oinarritutako kontratu bidez ezin izango da funtsezko aldaketarik egin esparru-akordioan ezarritakoari dagokionez. Aldaketa horiek ezin izango diete inola ere eragin esparru-akordioaren funtsezko baldintzei.

2.- Esparru-akordioa indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunek hautatutako artikuluren bat merkaturatzeari uzten badiote, antzeko beste produktu bat eskaini beharko dute, ezaugarri teknikoak eta kalitatezkoak berdinak edo hobeak dituena, prezioa igo gabe eta kontratuaren esleipenean aplikatu ziren ezaugarri teknikoen eta kalitatearen parametroak betetzen direla egiaztatu ondoren. Produktua ezin bada aipatutako baldintzetan eskaini, hornitzailea lote zehatzetik kanpo geratuko da, esparru-akordioari geratzen zaion indarraldiagatik, eta Haurreskolak Partzuergoak artikulu hori hirugarren hornitzaileei

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

eskuratzeko ahalmena izango du, baldin eta esparru-akordioaren barruan ez badago hori eskaintzen duen hornitzaile gehiago.

3.- SPKLren 204.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, aldaketak ezin izango du esparru-akordioan aurreikusi gabeko prezio berrien ezarpenik ekarri.

17.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK

Baldintza orokorren 37. klausulan aurreikusitakoez gain, suntsiarazteko arrazoi gehigarriak ezartzen dira: ez.

18.- KONTRATUAREN OBJEKTU DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK

18.1.- Ondasunak entregatzeko eta kontratuaren klausula espezifikoen 15.1 klausulan adierazitako lekura garraiatzeko gastuak kontratistaren kontura izango dira: bai.

18.2.- Botere esleitzaileak hornitu beharreko ondasuna edo ondasunak egiteko fasea zaintzeko eta aztertzeko modua: ez.

18.3.- Kontratistak berak egin behar ditu kolokatzeko edo instalatzeko zerbitzuak edo lanak, SPKL-ko 75.4 artikuluaren arabera: bai, guztiak.

18.4.- Beste batzuk: ez.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

II.- ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK

19.- ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ETA ERREGISTROAK.

19.1.- Botere adjudikatzailea: Haurreskolak Partzuergoa

19.2.- Organoen identifikazioa.

19.2.1.- Kontratazio-organoa: kontratuaren Kontratazio-organoa Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordea da.

19.2.2.- Organo hartzailea: HAURRESKOLAK PARTZUERGOA **DIR3 kodea:** A16007225

19.2.3.- Kontratuaren arduraduna: Elena Aizpuru Segurola.

19.2.4.- Kontabilitate publikoaren arloko organo eskuduna: Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

19.2.5.- Kontratazio-zentrala. Kontratua adjudikatzen duen organoak beste entitate batentzat egiten du lan: ez.

19.2.6.- Kontratazio-mahaiaren osaera:

Presidentea:

Titularra:	Ordezkoa(k):
Idoia Nogales Alberdi	Irantzu Benitez Galarza Mireia Ibarra Fernandez

Kide juridikoa:

Titularra:	Ordezkoa(k):
Begoña Barranco Lopez	Elena Aizpuru Segurola

Kide ekonomikoa:

Titularra:	Ordezkoa(k):
Irantzu Benitez Galarza	Mireia Ibarra Fernandez

Kideak:

Titularra:	Ordezkoa(k):
Alicia Andrés Luis	Iratxe Badiola Lopez
Mireia Ibarra Fernandez	Maialen Orbegozo Iturrale
Oihane Aisa Sorreluz	Olatz Zubimendi Maiz
Leire Aizpuru Alacano	

Idazkaria:

Titularra:	Ordezkoa(k):
Elena Aizpuru Segurola	Idoia Nogales Alberdi Alicia Andrés Luis

19.2.7.-Aditu batzordea/erakunde tekniko espezializatua: ez.

19.3.- Esparru-akordioaren esleipen-prozedura izapidetzeko ardura duen administrazio-unitatea: Haurreskolak Partzuergoko Ekonomia Kudeaketa zerbitzua.

Oinarrizko kontratuak esleitzeko prozedura izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea: Haurreskolak Partzuergoko Kudeaketa Ekonomikoko Zerbitzua.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

19.4.- Espedientea izapidetzen duen bulegoa:

Helbidea: Otaola Hiribidea 29, Jaizkibel eraikina
Herria eta Posta kodea: Eibar – 20.600

19.5.- Kontsultei erantzuteko kontaktua:

- helbide elektronikoa: ekonomia@haurreskolak.eus
- telefono zenbakia: 943821754

Interesdunek egiten dituzten kontsulta guztien erantzunak, Haurreskolak Partzuergoak uste badu gainerako interesdunei beren eskaintza egiten lagun diezaieketela, kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, jaso ahala eta erantzun ahala.
Argibideetarako informazioa eskatzeko eskaintzak entregatzeko epea amaitu baino 6 eguneko aurrerapena eskatuko da, gutxienez.

19.6.- Kontratatzailearen profilerako sarbidea, pleguak eta dokumentazio osagarria Interneten: Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman eta www.haurreskolak.eus.

19.7.- Eskaintzak aurkezteko azken eguna eta ordua: 2024ko uztailaren 5a, 13:00ak baino lehen.

19.8. Informazio argigarria eskuratzeko azken eguna: 2024ko ekainak 28.

20.- IZAPIDETZEA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

20.1.- Erregulazio harmonizatuko kontratua: ez.

Esparru-akordio hau prozedura IREKIAREN bidez esleituko da, hainbat balorazio-irizpiderekin, SPKLren 131., 145., 146., 147., 148. eta 149. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Era berean, espedientearen izapidetze arrunta aurreikusten da.

Esleipen-prozeduraren bidez, azpisorta bakoitzeko operadore ekonomiko edo enpresa bat hautatuko da, kalitate- eta prezio-erlaziorik onena duena, eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoko baldintzak, oinarri teknikoen agiria eta gehieneko prezio eta epeak betetzen dituena. Horrela, prezioak eta epeak maximoak izango dira, eta lizitazioko kide bakoitzak eskaintzen dituen produktuen ezaugarri teknikoak, gutxienekoak.

Lizitazioa kontratatzailearen profilean (www.haurreskolak.eus) argitaratuko da.

20.2.- Izapidetza: arrunta.

20.3.-Prozedura: irekia.

20.4.- Sortatan banatzeari buruzko informazioa: ez dagokio.

Eskaintza integratzailea aurkezteko aukera: ez.

20.5.- Izapideak egiteko bitarteakoak: ez elektronikoak.

20.6.- Enkante elektronikoa: ez.

20.7.- Gizarte-ekimeneko Enplegu Zentro Berezietarako eta gizarteratze-enpresetarako erreserbatutako kontratua, edo enplegu babestuko programen barruan dagoena: ez**.**

21.- KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA ETA BALIABIDEAK ADSKRIBATZEA

21.1.- Kaudimeneko gutxieneko betekizun batzuk edukitzeko betebeharra: bai, kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausularen arabera.

21.2.- Kaudimena: operadore ekonomikoek honako kaudimen hau eduki behar dute:

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko bitartekoei dagokienez, negozioen bolumen globalari buruzko aitorpen bat aurkeztu beharko da, hala badagokio, kontratuaren xedeari dagozkion jardueren esparruko negozio-bolumenari buruzkoa, gehienez ere enpresariaren jarduerak sortu edo hasi diren dataren arabera eskuragarri dauden azken bost ekitaldiei buruzkoa, 150.000 euro edo gehiagokoa (BEZa kanpo).

Enpresa sortu berrien kasuan, gutxienez finantza-erakunde baten aldeko txostena aurkeztu beharko du, eta bertan adierazi beharko du lizitatzaileak baduela lizitatzen duen kontratuari aurre egiteko beharrezko gaitasuna, edo, hala badagokio, arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru bat dagoela egiaztatzen duen agiria.

Kaudimen-betekizun desberdinak dituzten loteen kasuan, kaudimen-betekizun berberak aplikatzen zaizkion lote edo sorta bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da.

Hala ere, Kontratazio-organoak edo -mahaiak, prozedura behar bezala amaituko dela bermatze aldera, esleipena egin aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du lizitatzaileek agiri honetan kontratuaren esleipendun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkez ditzatela.

21.3.- Enpresa- edo lanbide-gaikuntza: ez.

21.4.- Pertsona juridikoek prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-kualifikazioa aurkeztu behar dituzte: ez.

21.5.- Baliabideak nahitaez adskribatzea: bai, II.2 Eranskinaren arabera.

22.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

22.1.- Adjudikazio-irizpide bakarra dago: ez.

22.2.- Adjudikazio-irizpide asko daude: bai.

<u>FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK:</u>

Ponderazioa guztira: 60 puntu

1. **ESKAINTZA EKONOMIKOA**

   a. Ponderazioa: 30 puntu

   b. Formula:

   - Balorazio-unitatea artikuluek eta hauek entregatzeko, muntatzeko eta instalatzeko beharrezko lanek osatzen dute.
   - Lote bakoitzak gehieneko puntuazio bat du esleituta, eta horrekin formula hau aplikatuko da.

$$\left[\frac{ALOP-AP}{ALOP-APH}\right] X\ EGP$$

non: ALOP, Azpilotearen Lizitaziorako Oinarrizko Prezioa da
AP, baloratu beharreko Azpilote Prezioa da
APH, Azpilotearen preziorik onena da
EGP, Ezarritako gehieneko puntuazioa (beheko taularen arabera)

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Lote bakoitzeko lor daitekeen gehieneko puntuazioa desberdina izango da lote bakoitzerako. Zehazki, puntuazioa jarraian zehazten den moduan banatzen da (gehienez):

	30 puntu (honela banatua)
1.Sorta: Termoak	15 puntu
2.Sorta: Sukaldeko tresnak	15 puntu
GUZTIRA	**30 puntu**

2. ENTREGATZE-EPEA

a. Ponderazioa: 15 puntu

b. Formula:

$$\left[\frac{EEH}{EE}\right] X\ 15$$

non: EEH, Entrega Epe Hoberena (epe motzena) da
EE, baloratu beharreko Entrega Epea da

3. BERME-EPEA

a. Ponderazioa: 15 puntu

b. Formula:

$$\left[\frac{BE}{BEH}\right] X\ 15$$

non: BE, baloratu beharreko Berme Epea da
BEH, Berme Epe Hoberena (epe luzeena) da

KONTRATU ERATORRIETAN ETA KONKURRENTZIARIK GABEKO EROSKETETAN EGINDAKO BALORAZIOAK

Kalitate-prezio erlazio onena duten eskaintzak kontratu deribatu bakoitzean zehaztuko dira, lehen aipatutako balorazio-irizpideen arabera.

22.3.- Eskaintza anormalki baxuak: SPKLren 149. artikulua eta APKLEOren 84. eta 85. artikuluak aplikatuko dira.

BALIO-JUDIZIOA EGITEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEAK:

Ponderazioa guztira: 40 puntu

Balorazioa	**Puntuazioa**
Hezkuntza printzipioen ikuspedi pedagogikoa	12
Kalitateari buruzko alderdiak	10

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Zerbitzuari buruzko alderdiak	10
Erosketa sistema	5
Preskripzio teknikoen agirian ezarritako zehaztapenetan eskatutako gutxienekoak gainditzen dituzten propietateak edo prestazioak	3

Aurreko ataletan puntuazioa lortzeko, ezinbestekoa da enpresa lizitatzaileek balioetsi daitezkeen alderdiak azaltzen dituen memoria aurkeztea eta organo eskudunek emandako egiaztagiriak eranstea.

1. HEZKUNTZA PRINTZIPIOEN IKUSPEGI PEDAGOGIKOA

a. Ponderazioa: 12 puntu

b. Haurreskolak Partzuergoaren hezkuntza-proiektuak jasotzen dituen oinarri pedagogikoak kontuan hartu izana baloratuko da. Hau da, haurraren garapen globala bultzatzea: fisikoa, afektiboa, intelektuala eta soziala.

Material bakoitzaren indibidualtasuna, genero-ikuspegia, hezkidetza, berdintasuna, hizkuntza eta hezkuntza-balioa kontuan hartuta.

- Kolore neutroak lehenestea: 4 puntu
- Ergonomia (haurrari egokitzea): 4 puntu. Baxerak haurraren garapen motorra sustatu behar du, hainbat trebetasun praktikatzeko aukera ematen baitio, hala nola objektuak heldu, eutsi eta manipulatzea. Haur txikien janari-zatietarako tamaina egokia izan behar dute, eta ertzak igoak izan behar dituzte elikagaiak errazago manipulatzeko. Mahai-tresnak ergonomikoak eta heltzeko errazak izan behar dira, esku txikietarako diseinatutako kirtenekin.
- Independentzia eta autonomia: 2 puntu. Baxerak haurraren independentzia eta autonomia sustatu behar ditu, jateko prozesuan aktiboki parte hartzeko aukera ematen baitio. Horren barruan, oinarri irristagaitzak edo azpialdean testurak dituzten platerak edo bolak egon daitezke, mahai gainean edo tronaren erretiluan irrist egin ez dezaten, bai eta esku txikiek erraz maneiatzeko diseinatutako mahai-tresnak ere.
- Estimulazio sentsoriala: 2 puntu. Baxera hainbat testura, kolore neutro eta forma eskaintzeko diseinatuta egon daiteke, haurraren zentzumenak estimulatzeko. Besteak beste, erliebedun platerak, mango testurizatuekin estaliak, ukitzean leunak diren materialak, haurrentzako diseinu lagunkoiak...

2. KALITATEA

a. Ponderazioa: 10 puntu

b. Gehienez ere 10 puntu emango zaizkie produktuen kalitatea eta segurtasuna bermatzen duten ziurtagiri edo produktu-marka guztiei. Hau da, hirugarren erakundeek produktua eta haren produkzio-prozesua etengabe kontrolatzeko egiten dituzten jarduerei.

Ingurumen-ziurtagiri edo -marka bakoitzari 3 puntu emango zaizkio. Gainerako kasuetan, ziurtagiri edo marka bakoitzari 2 puntu emango zaizkio. Besteak beste, hauek baloratuko dira:

- PEFC/FSC Ziurtagiria
- Zero Waste Ziurtagiria

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

- Zero hondakin sistemaren Ziurtagiria
- Ehun organikoen erabilera
- Jostailu jasangarriak
- Bai Euskarari
- Tecnalia kalitate marka
- …

3. ZERBITZUARI BURUZKO ALDERDIAK

a. Ponderazioa: 10 puntu

b. Zerbitzu egokia bermatuko duen egitura logistikoari buruzko alderdiak. Gehienez 10 puntu emango dira:

- Giza-taldea (2,5 puntu): enpresa lizitatzaileak kontratu hau gauzatzeko eskaintzen duen arreta pertsonalizatua baloratuko da.
  Zehazki, honako hau baloratuko da ondorio horietarako: gauzatzeaz arduratzen diren langileek Haurreskolak Partzuergoko erosketa-unitateen funtzionamendua ezagutzea, tresnak eskuratzeko eskumena dutenak, eta langileak prest egotea tresnak eskuratzeko gaitasuna duten erosketa-unitateen behar guztiak entzun eta erantzuteko, enpresa lizitatzaileko beste langile batzuei kontsultak egiteko beharrik izan gabe.
- Harremanetarako hizkuntza (2 puntu): kontratuaren exekuzioan erabiliko den harremanetan eta dokumentazioetan izango den euskara erabilera - maila baloratuko da. Baita, kontratuaren exekuziora atxikitutako giza-baliabideen euskara ezagutza maila ere da.
  Honetaz gain, enpresa lizitatzaileak Euskara Plana duen baloratuko da.
  Banaketa- eta garraio- logistika (2,5 puntu): Enpresa lizitatzaileak produktuak banatzeko egiten duen proposamena baloratuko da, kontuan hartuta baldintza-agiri honetan ezarritako baldintzak, entregak egiteko eskakizunak, eta baldintza teknikoen agirian jasotzen diren gainerako betekizunak.
  Atal honetan, banaketa eskaera bakoitzaren eta une bakoitzeko beharren arabera pertsonalizatzeko aukera baloratuko da. Bai eta fabrikatzaileen bilgarri estandarrez bestelakoak dituzten produktuak banatzeko aukera ere.
  Honetaz gain, kontratu honen exekuziorako enpresa lizitatzaileak eskaintzen dituen garraiobide propioen nahiz kanpokoen proposamena baloratuko da.
  Zehazki, berariaz baloratuko da garraioa beti ekipo berdinak egitea, zentro bakoitzaren funtzionamendua ezagutu dezaten. Halaber, enpresak materiala garraiatzeko duen gaitasuna ere baloratuko da, zentro bakoitzaren beharrizanak kontuan hartuta.
  Nolanahi ere, enpresek zehaztu egin beharko dute ea garraioa bitarteko propioekin edo kanpokoekin egingo den eta zein neurritan.
- Saldu ondoko zerbitzua (2 puntu): erosketa-unitateek tresneria erosi ondoren sor daitezkeen gorabeheren aurrean ebazpen-proposamena baloratuko da. Batez ere, produktua zuzentzeko edo birjartzeko epea baloratuko da eta hori, nahitaez, hilabete baino gutxiagokoa izango da.
- Biltegien kokapena (puntu 1): tresneria hornitzea premiazko beharrizana izan daiteke. Hori dela eta, hornidurak jarraian eta azkar egiteko aukera izan daiteke esparru-akordio honetako lehentasunetako bat. Horrenbestez, eta hornidurak ahalik eta ondoen garatzen direla bermatzeko asmoz, honako hauek bereziki baloratuko dira:
  - Beren biltegiak Euskal Autonomia Erkidegoan edukitzea.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

- Eskatutako produktu guztiak hornitzeko beste fabrikatzaile/hornitzaile batzuk behar izanez gero, beren biltegietan stock nahikoa edukitzeko aukera.

4. EROSKETA SISTEMA

a. Ponderazioa: 5 puntu

b. Gehienez 5 puntu emango dira esparru-akordio hau gauzatzeko atari edo katalogo elektroniko bat jartzeagatik, hornikuntzaren kudeaketa errazteko. Zehazki, honako ezaugarri hauek betetzen ote diren baloratuko da:

- Atari edo katalogo elektronikoan kontratu honen parte diren artikulu edo produktuak identifikatzeko aukera: puntu 1.
- Produktuak eta horiei buruzko datuak, baldintza teknikoak, prezioak eta adierazpen grafikoak bilatzeko aukera ematen duen sistema informatikoa: puntu 1.
- Erabiltzaileen alta-sistema, kudeaketa-adierazleak, erabiltzaileen profil desberdinak finkatzeko aukera, sistema informatiko propioekiko konexioa (atari edo katalogo elektronikora sartzeko aukera, Haurreskolak Partzuergoaren web-orritik lotura bat eginez), atarian sortutako datuen babeserako bermeak eta eskaerek sortutako informaziorako sarbidea: puntu 1.
- Aurrekontua eskatzeko aukera: puntu 1.
- Eskaria behin-behinean gordetzeko eta berretsi aurretik berreskuratu eta gordetzeko aukera: puntu 1.

5. BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAN EZARRITAKO ZEHAZTAPENETAN ESKATZEN DIREN GUTXIENEKOAK BAINO ALTUAGOAK DIREN PRODUKTUEN EZAUGARRI EDO PRESTAZIOAK.

a. Ponderazioa: 3 puntu

b. Baldintza teknikoen agirian eskatzen direnak baino prestazio edo ezaugarri altuagoak eskaintzen dituzten alderdiei gehienez ere 3 puntu emango zaizkie:

- Materialetan eskatutako gutxienekoak baino altuagoak diren sailkapenak (toxikotasuna, sukoitasuna, beirak...): puntu 1.
- Produktuan eskatutako gutxienekoak baino altuagoak diren sailkapenak (segurtasuneko entsegu-mailak, egonkortasuna...): puntu 1.
- Materialen kalitate altuagoa: puntu 1.

23.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

Ez dira ezartzen.

24.- GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

Prozeduran parte hartzeko eskatzen diren dokumentuak jarraian adierazten diren fitxategi elektronikoen edo gutun-azalen barruan aurkeztuko dira.

24.1.- A GUTUN-AZALA: ADMINISTRAZIO-AGIRIAK.

Baldintza orokorren 13.1 klausulan azaltzen diren dokumentuak aurkezu beharko dira gutun-azal honetan.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

EKAB agiriaren IV. atalari dagokionez, operadore ekonomikoak **α atala** bakarrik bete beharko du: bai.

24.2.- B GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZA.

Dokumentu hau(ek) aurkeztu beharko d(ir)a gutun-azal honetan:

- III.1 Eranskinean agertzen den ereduaren araberako eskaintza ekonomikoa. Ez dira onartuko eskaintza kontuan hartzeko Haurreskolak Partzuergoak funtsezkotzat jotzen dituenak argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak.

  Proposamena bai Word formatuan eta bai Excel fitxeroan aurkeztea beharrezkoa izango da. Proposamenen bat ez badator bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin, ezarritako eredua nabarmen aldatzen bada edo lizitatzaileak akats edo hutsuneren bat dagoela eta bideraezina dela aitortzen badu, kontratazio-organoak ez du onartuko kasuan kasuko proposamena. Edonola ere, ereduko hitzen bat aldatu edo ez agertze hutsa ez da aski izango proposamena ez onartzeko, ereduaren beraren zentzu orokorra aldatzen ez bada.

  Proposamenean jasanarazi beharko den Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa adierazi beharko da, partida independentean. Prezioak produktuen garraioa, muntaia eta instalazioa barne hartzen ditu.

  Nahitaezkoa izango da II.6 Eranskinean zein sorta/etara, azpisorta/etara lizitatuko den zehaztea.

24.3.- C GUTUN-AZALA: BALIO-IRITZIA EGITEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEAK APLIKATUTA EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZA: bai.

Gutun-azal honetan ondorengo dokumentua/k aurkeztu beharko d(ir)a. Aurkibide bat barneratu beharko da, aurkeztu diren dokumentu guztiak identifikatzeko. Dokumentuak apartatu honetan eskatzen diren ordenan eta bereizita jarriko dira:

- Fitxa teknikoa (IV.1 Eranskina) hornitu beharreko produktuen deskribapenak eta argazkiak jasotzen dituena. Honen bidez balio-iritzirako ondorengo bi alderdiak baloratuko dira:

  - Elementuen egokitasun pedagogikoa.
  - Baldintza teknikoen agirian ezarritako zehaztapenetan eskatzen diren gutxienekoak baino altuagoak diren produktuen ezaugarri edo prestazioak.

  Fitxa honen bidez produktuaren deskribapena eta bere funtzionaltasunak aztertuko dira. Hori dela eta, bertan zehazten diren atal guztiak zuzen beteko dira.

  Fitxa teknikoan goian aipatutako alderdiak zehazteaz gain, alderdi horiek justifikatzen dituzten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Halakotzat joko dira entsegu-ziurtagiriak edo adostasun-ziurtagiriak. Entsegu-txostenak eskuragarri egon beharko dira, zalantzak argitu behar izanez gero eskatu egin baitaitezke.

- Kalitateari buruzko ziurtagiriak: Enpresaren aldetik kalitate-, ingurumen- eta prebentzio-mailako politika bermatzen duten enpresa-ziurtagiri guztiak erantsi beharko dira. Honen bidez balio-iritzirako ondorengo alderdia baloratuko da:

  - Kalitatea.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

- Zerbitzuari buruzko memoria: Honen bidez balio-iritzirako ondorengo alderdia baloratuko da:

    - Zerbitzua.

  Atal honen baloraziorako, ondorengoa aurkeztuko da:

  - Azalpen memoria: azalpen-memoria bat aurkeztuko da, enpresa lizitatzaileek Haurreskolak Partzuergoaren esku jartzen dituzten baliabideak eta gaitasuna baloratzeko. Memoriak, besteak beste, enpresa lizitatzaileak dituen bitartekoak zehaztu beharko ditu, hala nola:
    - Giza-taldea
    - Banaketa eta garraio logistika
    - Salmenta ondorengo zerbitzuaren deskribapena
    - Harremanetarako hizkuntzaren ezagutza eta erabilera
    - Euskera Plana
  - Biltegien kokapena: Enpresa lizitatzaileek kontratua exekutatzeko Haurreskolak Partzuergoaren esku jartzen dituzten biltegien zerrenda zehatza. Zerrenda horretan biltegi horien kokapena (helbidea, probintzia, posta-kodea) adierazi beharko da.

- Erosketa-sistemari buruzko memoria: Erosketen kudeaketaz arduratuko den atari edo katalogo elektronikoa izanez gero, honen funtzionamendua eta ezaugarriak azaltzen dituen memoria erantsi beharko da. Honen bidez balio-iritzirako ondorengo alderdia baloratuko da:

    - Erosketa-sistema.

24.4.- Aldaerak onartzen dira: ez.

25.- ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Baldintza orokorren 21.1 klausulan azaldutako gainerako dokumentuekin batera, honako dokumentu hauek ere aurkeztu behar dira, hala badagokio:

25.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan jasotako kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren betekizunak egiaztatzeko agiriak: bai, ondorengoak.

☑ Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:
- Negozioen bolumen globalari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

☑ Kaudimen tekniko eta profesionala:
- Produktuen fitxa teknikoak eta produktuen ziurtagiriak.

Operadore ekonomiko berrien kasuan (bost (5) urtetik beherako antzinatasuna), honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan jasotako kaudimen-baldintzak egiaztatzeko:
- Finantza-erakunde baten aldeko txostena, gutxienez edo
- Lanbide-arriskuengatiko kalte-ordainen aseguru bat izatearen egiaztagiria.

25.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.5 klausulan aipatzen diren baliabide materialak eta giza baliabideak eskuragarri daudela egiaztatzeko agiriak: ez dagokio.

26.- PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK

26.1.-Baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria:

26.1.1.- Eskatzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko epea itxi baino 12 egun lehenago.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

26.1.2.- Eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 6 egun lehenago.

26.1.3.- Baldintza-agiriei edo gainerako dokumentuei buruzko argibideak lotesleak dira: bai.

26.2.- Konpentsazio-modu espezifiko bat aurreikusi da kontratuari uko egiten zaionerako eta botere adjudikatzaileak prozeduran atzera egiten duenerako: ez.

26.3.- Kontratua adjudikatzeko gehieneko epea SPKLren 158.2 artikuluan ezarritakoaz bestelakoa da: ez da behar.

26.4.- Baldintza orokorren 23.1 klausulan azaldutakoa osatzeko dokumentazioa (kontratua formalizatu baino lehen aurkeztu behar da): ez.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

27.- KONTRATUA LAGATZEA

Kontratua lagatzeko beste kasu batzuk aurreikusten dira, baldintza orokorren 34.1.1 klausulan aurreikusten direnez bestelakoak: ez.

28.- GIZARTEKO, INGURUMENEKO ETA PROZEDURAN ETA KONTRATUAN SARTUTAKO BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEN INGURUKO ALDERDIEN JARRAIPENA EGITEKO KOADROA

Alderdiak:	**GIZARTEKOAK EDO ENPLEGUARI BURUZKOA**				**INGURUMENARI BURUZKOA**	**HIZKUNTZARI BURUZKOAK**
	BEREZIKI			BESTE BATZUK		
	Laneratzea	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	Lan-arriskuen Prebentzioa			
Kontratuaren objektua						
Kaudimen-betekizunak						
Zehaztapen teknikoak						
Adjudikazio-irizpideak					Bai	Bai
Kontratua betetzeko baldintza bereziak		Bai	Bai			Bai

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

BALDINTZA OROKORRAK

I.- KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA ALDERDI OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratuaren objektua kontratuaren klausula espezifikoen 1. klausulan adierazita dago eta preskripzio tekniko partikularren agirian definituta.

Objektua sortatan zatiturik badago, kontratuaren klausula espezifikoen 1.5.2 klausulan egongo da adierazita sorta bakoitzaren objektua, eta preskripzio tekniko partikularren agirian definituta.

Kontratuaren klausula espezifikoen 1.6 klausulan adierazten da prestazioaren CPV.

Segidako traktuko kontratua bada eta ez bada zehatz definitu zenbat prestazio-unitatek osatzen duten objektua, botere adjudikatzaileak eskatutako prestazio-unitateak egin beharko ditu kontratistak.

2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK

Honako hauek izango dira kontratu-dokumentuak:

a) Administrazio-klausula partikularren agiria (AKPA).

b) Preskripzio tekniko partikularren agiria (PTPA).

c) Kontratua formalizatzeko dokumentua.

d) Oinarritutako kontratuak esleitzeko ebazpena.

3.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

3.1.- Kontratua **administrazio izaerakoa** da, eta ondoren azalduko diren arau eta dokumentuen araberakoa izan beharko da.

3.2.- Kontratu-dokumentuetan aurreikusita ez dauden gauzetarako, kontratuak honako arau hauek bete beharko ditu:

a) Administrazio-klausula zehatzen agiri honetan jasotako klausulak.

b) Baldintza tekniko zehatzen agirian jasotako klausulak.

c) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL).

d) 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena (HAKLEO), SPKLn aurreikusitakoaren aurka ez doan heinean.

e) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, SPKLn aurreikusitakoaren aurka ez doan heinean.

f) Kontratu-izaera duten dokumentuak.

g) 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubideari buruzkoa, SPKLn aurreikusitakoaren aurka ez doan heinean.

h) 40/2018 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

i) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

j) 3/2016 Legea, apirilaren 7koa, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoa.

k) 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa.

l) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.

m) 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Eusko Legebiltzarrarena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

n) 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako.

o) 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.

p) Estatuko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, haren eremuan aplikagarriak direnak.

q) Ordezko gisa, Administrazio Zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, Zuzenbide Pribatuko arauak.

3.3.- Aldeek berariaz bete beharko dute kontratu-dokumentuetan ezarritakoa.

Agiri horietan ezarritakoa ez jakiteak ez du kontratista baldintza horiek betetzetik salbuesten, eta eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula guztiak, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

4.- INFORMAZIOA GAI HAUEI BURUZ: ZERGA, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LAN-BALDINTZAK, LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN KOPURU EDO EHUNEKO ESPEZIFIKO BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRA, DATUEN BABESA ETA LEHIAREN DEFENTSA

Erakunde hauetan lor daiteke indarrean dauden betebehar eta xedapenei buruzko informazioa:

4.1.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoa.

4.2.- Fiskalitatea: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako eta Nafarroako Foru Komunitateko foru-ogasunak, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.

4.3.- Ingurumenaren babesa: IHOBE, S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

4.4.- Enpleguaren babesa, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa: Lan eta Enplegu arloan eskumena duen Sailaren edo sailen dagokion Zuzendaritza eta OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea erakunde autonomoa.

4.5.- Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharra: LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoa.

4.6.- Datuen babesa: Euskadiko Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

4.7.- Lehiaren Defentsa: Lehiaren Euskal Agintaritza.

5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, AURRETIAZKO IZAPIDETZEA ETA BALIO ZENBATETSIA

5.1.- Kontratuaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontua kontratuaren klausula espezifikoen 3.1 klausulan agertzen dena da.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

5.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 3.2 klausulan adierazitako aurrekontu-aplikazioan **kreditu** zehatza dago kontratutik eratorritako betebeharrei erantzuteko.

5.3.- Espedientea kontratuaren klausula espezifikoen 3.3 klausularen arabera aldez **aurretik izapidetu** behar bada, dagokion ekitaldi ekonomikoan kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende geratuko da kontratua esleitzea.

5.4.- Balio zenbatetsia kontratuaren klausula espezifikoen 4. klausulan agertzen dena da.

6.- KONTRATUAREN PREZIOA ETA KONTRATUAREN GEHIENEZKO AURREKONTU MUGATZAILEA

6.1.- Kontratuaren prezioa honenbesteko prezioaren araberakoa denean: honenbesteko prezioa duten kontratuetan, adjudikaziodunak eskainitakoa izango da kontratuaren prezioa, baina inola ere ezin izango da izan kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulan agertzen den lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe) baino handiagoa.

6.2.- Kontratuaren prezioa unitate-prezioen araberakoa denean:

a) Argi zehaztu bada zenbat unitatek osatzen duten objektua, hauxe izango da prezioa: enpresa adjudikaziodunak eskainitako unitate-prezioa bider unitate kopurua.

b) Ez bada zehatz definitu zenbat unitatek osatzen duten objektua:

1. Adjudikaziodunak eskainitakoa izango da unitate bakoitzaren prezioa.

2. Kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea ezarriko da. Aurrekontu hori lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren berdina izan daiteke, edo, baldin eta adjudikaziodunak ez badu unitateko lizitazio-prezioen murrizketarik eskaini, kontratazio-organoak zehaztuko duen proportzioan murriztu ahal izango da.

Kasu horretan, aurrekontuaren benetako gastua botere adjudikatzailearen egiazko beharrizanen araberakoa izango da, ez baitago behartuta unitate kopuru zehatz bat eskatzera, ez eta aurrekontu osoa gastatzera ere.

6.3.- Prezioa zehazteko bi sistemak (honenbesteko prezioa nahiz unitate-prezioak) erabiltzen badira prestazioaren zati diferenteetarako, kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulan eta baldintza orokorren 6.1 eta 6.2 klausuletan xedatuta dagoenari jarraituko zaio.

6.4.- Kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea adjudikazio-ebazpenean zehaztuko da, BEZa partida independente gisa aipaturik, eta, behar izanez gero, urte anitzeko banaketa ere.

6.5.- Kontratuaren prezioan edo prezioetan, zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak sartuta daude, bai eta kontratuaren baldintzak betetzeak dakarren beste edozein gastu ere.

7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioak berrikusi daitezke baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 5.4 klausulan hala jasota badago, eta klausula horretan azaltzen den formula aplikatu beharko da.

8.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN BETEARAZPEN-EPEA EDO IRAUPENA. LUZAPENA

8.1.- Traktu bakarreko kontratuak: kontratuaren betearazpen-epea kontratuaren klausula espezifikoen 6.2 klausulan azaldutako egunean hasiko da, eta honako hau da:

a) Eskaintzek ezin badute epe osoa eta/edo epe partzialak laburtzea proposatu: kontratuaren klausula espezifikoen 6.1 klausulan adierazitakoa.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

b) Eskaintzek epe osoa eta/edo epe partzialak laburtzea proposatu badezakete: adjudikaziodunak eskaintzen dituenak.

Epe horiek luzatu daitezke, baina SPKLren 195.2 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera soil-soilik.

8.2.- Segidako traktuko kontratuak: kontratuaren iraupena eta epe partzialak kontratuaren klausula espezifikoen 6. klausulan adierazita daude. Kontratuaren klausula espezifikoen 6.2 klausulan agertzen den egunean hasiko da kontratua.

8.3.- Segidako traktuko kontratuen luzapena: Kontratuaren klausula espezifikoen 6.3 klausulan hala xedatzen denean, kontratazio-organoak kontratua luzatzea erabaki ahal izango du. Hori nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, salbu eta SPKLren 198.6 artikuluan jasotako suntsiarazpen-kausa gertatu bada. Kontratuaren luzapena kontratistarentzat nahitaezkoa izan dadin, kontratuaren arduradunak aurreabisua eman beharko dio kontratua amaitu baino bi (2) hilabete lehenago, gutxienez.

Luzapena kontratazio-organoaren ebazpenaren bitartez erabakiko da, eta hori erabakitzeko prozedurak jardun hauek hartuko ditu barnean:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena, kontratua luzatzeko beharra justifikatzen duten interes publikoko arrazoiak, prezioa eta epea zehaztuz.

b) Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun balioduneko epean.

c) Txosten juridikoa.

d) Kontrol ekonomiko-fiskalaren aurretiazko fiskalizazio-txostena, salbuetsita ez dagoenean.

e) Kontratazio-organoaren ebazpena.

9.- BERMEAK

9.1.- Behin-behineko bermea SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako formuletako batean eman ahalko da, eta SPKLren 106.3 artikuluan xedatuta dauden moduetan gordailutu beharko da.

Behin-behineko bermea automatikoki azkenduko da, eta kontratua perfekzionatu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei. Hautatutako lizitatzaileari dagokionez, behin betiko bermea eratzen duenean itzuliko zaio behin-behineko bermea, SPKLren 106.4 artikuluan eta baldintza orokorren 23.4 klausulan xedatuta dagoenaren arabera.

9.2.- Behin betiko bermea eta berme osagarria aurreko apartatuan aurreikusitako formulen bitartez eman ahalko dira, baita prezioa atxikita ere, hori kontratuaren klausula espezifikoen 8.4 klausulan baimenduta badago.

P0100385D IFZ duen HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN alde eratuko dira bermeak.

9.3.- Aldi baterako enpresa-elkartea (aurrerantzean ABEE) denean, behin-behineko eta behin betiko bermeak ABEEko partaide batek edo batzuek eratu ahalko dituzte, betiere guztira eskatzen den zenbateko osoa lortzen bada, eta kide guztiak batera eta modu solidarioan bermatuta badaude.

10.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK

10.1.- Euskadiko Kontratazio Publikoko kontratatzailearen profilera sartzeko honako esteka hau erabili beharko da: http://www.contratacion.euskadi.eus

10.2.- Honako datu eta informazio hauek argitaratuko dira kontratatzailearen profilean:

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

1. Aurretiazko informazioaren iragarkia, hala badagokio.

2. Lizitazio-iragarkia.

3. Espedientea onesteko ebazpena.

4. AKPA, PTPA eta dokumentazio osagarria.

5. Kontratuaren objektu zehatza, iraupena, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

6. Honako hauek justifikatzen dituen memoria: kontratazioa egiteko beharrizana, kontratazioaren egokitasun eta efizientzia eta kontratazioak kontratuaren objektuarekin daukan harreman zuzen, argi eta proportzionala.

7. Espedientea hasteko ebazpena, kontratazio-organoak sinatua.

8. Merkatuari buruzko aurretiazko kontsultarik egin bada, egin diren kontsultei buruzko txosten arrazoitua, SPKLren 115. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

9. EKAB betetzeko xml fitxategia.

10. Kontratazio-organoari lagundu behar dioten kontratazio-mahaien osaera eta kideen kargua.

11. Balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko adjudikazio-irizpideak aplikatzeko aditu-batzordeko kideen izendapena, aditu horien esku-hartzea kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.7 klausulan azaltzen denean. Gainera, kideen kargua adierazi beharko da.

12. Kontratuaren publizitatea egiteko erabili diren bitartekoak eta argitalpen horietarako estekak.

13. Hala badagokio, kontratazio-organoaren ebazpena (edo ebazpenak), zeinaren bidez AKPAn eta/edo PTPAn aldaketa esanguratsuak sartzen diren eta epea luzatzearen ondorioz eskaintzak aurkezteko mugaegun berriak ezartzen diren. Dena dela, jardueretan atzera egitea erabaki ahalko da, SPKLren 122.1 eta 124. artikuluen arabera.

14. Akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko administrazio-klausula zehatzen plegua eta/edo proiektua aldatzen dituen kontratazio-organoaren ebazpena edo ebazpenak.

15. Baldintza-agiriei eta/edo gainerako dokumentazioari buruzko argibideak, kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.3 klausularen arabera erantzunak lotesleak izan zein lotesleak ez izan.

16. Adjudikazio-prozeduran parte hartzen duten lizitatzaileen kopurua eta nor diren.

17. Kontratazio-mahaiaren bilera publikoak egiteko datak eta lekuak, eta, hala badagokio, data eta leku horien aldaketak, bai eta hori guztia zein webgunetan ikusi ahal izango den ere, hala egin badaiteke.

18. Onartutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda, eta, baztertutakoen kasuan, baztertzeko arrazoiak.

19. Kontratazio-mahaiaren aktak.

20. Eskaintza bakoitzean balio-iritzi batean oinarrituta kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-irizpideak balioesteko txostena.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

21. SPKLren 149.4 artikuluan aipatzen denaren arabera ustez anormaltasuna duten eskaintzei buruzko txostena edo txostenak, hala badagokio.

22. Eskaintzei esleitutako puntuazioak, puntuazio horiek aktetan jasotzen ez badira edo aktak idazten eta argitaratzen ez diren arte jasotzen ez badira.

23. Kontratua adjudikatzeko ebazpena.

24. Adjudikazioduna nor den.

25. Adjudikazioaren zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga barne.

26. Kontratua formalizatzeari buruzko iragarkia eta kontratu-dokumentua.

27. Hala badagokio, kontratua egiteari buruzko datu guztiak zergatik argitaratzen ez diren azaltzen duen txostena, SPKLren 154.7 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

28. Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea erabakitzeko.

29. Kontratazio-organoaren ebazpena, adjudikazio-prozeduran atzera egitea erabakitzeko.

30. Kontratazio-organoaren ebazpena, adjudikazio-prozedura hutsik geratu dela deklaratzeko.

31. Errekurtsorik jarri bada, errekurtso horien ondorioz adjudikazio-prozedura aldi baterako eten daitekeela dioen oharra.

32. Adjudikazio-prozedura deusez deklaratzeko ebazpena.

33. Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua luzatzeari buruzkoa.

34. Kontratua aldatzeari buruzko iragarkiak, kontratazio-organoak kontratua aldatzea erabakitzeari buruz emandako ebazpena, horretarako justifikazioa, kontratistaren alegazioak eta, hala badagokio, onetsi aurretik jaso diren txosten guztiak.

35. Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua lagatzeko baimena ematen duena.

36. Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaera aldatzeko baimena ematen duena.

10.3.- Interesdunek **kontsultak egin ditzakete eta dokumentazio osagarria edo informazio gehigarria** eskatu, kontratuaren klausula espezifikoen 19.5 klausulan agertzen den helbide elektronikoaren bitartez. Idatziz egin beharko da hori, kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.1 klausulan informazioa eskatu ahal izateko ematen den azken egunera arte. Kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.2 klausulan azaltzen den mugaegunera arte (hori barne dela) erantzun beharko zaie eskaerei.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

II.- LIZITAZIOA

11.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

11.1.- Kontratazio-prozeduran parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten, interes-gatazkako egoeran ez dauden eta kaudimen-baldintzak betetzen dituzten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek edo atzerritarrek, eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan ezarritako gaikuntzak dituztenek (baldin eta klausula horretan adierazten bada gaikuntza eduki behar den unea "eskaintzak aurkezteko azken eguna" dela).

Aurreko paragrafoan adierazitako betekizunak betetzen dituzten eta ABEE batean elkartu diren pertsonek ere parte hartu ahal izango dute, legez aurreikusitako baldintzen arabera.

Parte hartu ahal izango dute SPKLren 66.1 artikuluan xedatuta dagoena betetzen duten pertsona juridikoek eta Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako operadore ekonomikoek eta, Europar Batasunekoak izan ez arren, SPKLren 67. eta 68.1 artikuluetan xedatuta dagena betetzen duten operadore ekonomikoek.

11.2.- Pertsona bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 24.4 klausulan aldaerak onartzen badira. Bakarrik aurkezten direnek ere ezin izango dute ABEEetan beste proposamenik izenpetu, ez eta ABEE batean baino gehiagotan parte hartu ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko pertsona horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

11.3.- Kontratuaren klausula espezifikoen 20.7 klausularen arabera kontratua erreserbatu bazaie, hurrenez hurren, gizarte-ekimeneko Enplegu Zentro Bereziei eta laneratzeko enpresei, edo enplegu babestuko programen barruan sartuta badago, SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatuta dagoenaren arabera, azaldutakoaz gain legez ezarritako betekizunak betetzen dituztenek soilik parte hartu ahal izango dute (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; 44/2007 Legea, abenduaren 13koa, laneratzeko enpresen erregimena arautzen duena).

11.4.- Hala badagokio kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan eskatzen den gaitasun, kaudimen eta enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionalari buruzko inguruabarrak (salbu eta klausula horretan adierazi bada gaikuntzak "kontratua formalizatu baino lehen" eduki behar direla) eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta horiek betetzen jarraitu beharko da kontratua perfekzionatzeko unean.

Kontratazio-mahaiak prozeduraren edozein unetan eskatu ahal izango die lizitatzaileei ziurtagiri eta dokumentu guztiak edo batzuk aurkezteko, kontratua adjudikatu aurretik, prozeduraren garapenaren mesederako baldin bada. Halaber, aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruzko argibideak emateko edo beste dokumentu batzuk aurkezteko ere eskatu ahal izango die kontratazio-mahaiak.

11.5.- Eskaintza aurkeztu izanak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honen nahiz gainerako kontratu-dokumentuen klausulak, inolako eragozpen edo erreparorik gabe, eta gainera baimena ematen diela kontratazio-mahaiari eta kontratazio- organoari, kontratua adjudikatzeko prozeduraren edozein unetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan edo Europar Batasuneko kide den estaturen baten datu-base nazional batean jasotako datuak kontsultatzeko, baldin eta, azken kasu horretan, datu-basera sartzea doakoa bada. Operadore ekonomikoek ez dute nahitaez aurkeztu behar erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeko dokumentazioa.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

12.- ESKAINTZAK AURKEZTEA

Datu pertsonalak babesteko araudian ezarritakoa betez, prozedura honetan jasotzen diren datuak fitxategi elektroniko batean sartuko dira, kontratu hau behar bezala esleitu eta gauzatzen dela bermatzeko. Datu horiek ez zaizkie hirugarrenei lagako, aipatutako araudian xedatutakoa izan ezik. Lizitatzaileek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta datu pertsonalak babesteko legean jasotako gainerako eskubideak baliatu ahal izango dituzte.

12.1.- Hizkuntza.

Dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita edo ofizialki itzulita aurkeztu behar dira.

12.2.- Bitartekoak.

12.2.1.- Bitarteko elektronikoak.

Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulan kontratua esleitzeko prozedura izapidetzeko bitartekoak elektronikoak ez direla adierazten ez bada, eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN/CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI plataformaren bidez.

Eskaintza aurkezteko epean jaso dela ulertuko da, baldin eta bidalketa epe horren barruan hasi eta arrakastaz amaitzen bada. Ondorio horietarako, eskaintza epe barruan bidaltzen dela ulertuko da lizitatzailearen ordezkaritzak ezarritako epearen barruan "eskaintza sinatu eta bidali" botoia sakatzen badu, eta transmisioa arrakastaz amaitzen dela ulertuko da aurkeztutako eskaintza osatzen duten dokumentuak erregistro elektronikoan sartzen direnean.

12.2.2.- Elektronikoak ez diren bitartekoak edo paperekoak.

12.2.2.1.- Aurkezteko modua:

a) Dokumentuak gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, operadore ekonomikoak edo haren ordezkariak sinatuta. Gutun-azal bakoitzaren barruan, bertan sartu diren dokumentuen aurkibide zenbakiduna sartu beharko da, eta gutun-azal bakoitzaren kanpoaldean honako datu hauek jarriko dira:

1. Gutun-azalaren identifikazioa (A, B, C edo besteren bat), kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. Kontratuaren identifikazioa: espediente-zenbakia eta objektua.

3. Lizitatzailearen identifikazioa: pertsona juridikoa bada, bere izen soziala eta IFZ adieraziko dira; pertsona fisikoa bada, izen-abizenak eta NANaren edo dokumentu baliokidearen zenbakia.

4. Eskaintza sinatzen duen pertsona fisikoaren identifikazioa: izen-abizenak eta NANaren edo dokumentu baliokidearen zenbakia.

b) Gutun-azalaren barruan, agiri honetan gutun-azal bakoitzerako zehazten den dokumentazioa baino ez da sartu behar. Era berean, gutun-azal bakoitzaren barruan, orri bereizi batean, gutun-azalaren edukia jasoko da, zenbakiz enuntziatua. Gutun-azalen barruan, dokumentazioa bi aldeko orrietan inprimatu beharko da, grapatuta eta koadernatu gabe.

Dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita egongo dira, eta ondorengoak izango dira:

- Originalak

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

- Notario edo fede-emaile publiko batek legitimatutako kopiak
- Administrazio kontratatzaileak konpultsatutako kopiak

Horretarako, Haurreskolak Partzuergoko zerbitzu teknikoek agiriak konpultsatuko dituzte proposamenak aurkezteko azken egunaren aurreko 13:00ak arte.

Atzerriko enpresek dokumentu guztiak euskaraz edo gaztelaniaz ofizialki itzulita aurkeztuko dituzte.

c) Eskaintzak paperean (kopia bat) eta beste euskarri iraunkor batean (CD-ROMa izan ezik) aurkeztuko dira, hau da, kontratazio-organoari lizitazioan zehar informazioa gordetzeko aukera ematen dion edozein euskarritan. Paperaz gain, euskarri iraunkorrak dira USB memoriak, memoria-txartelak eta ordenagailuko disko gogorrak. Euskarri iraunkorra gutun-azal bakoitzean sartu beharko da, paperezko eskaintzarekin batera.

Paperean eta beste edozein euskarri iraunkorretan aurkeztutako eskaintzen artean kontraesanik badago, paperean adostutakoa gailenduko da, salbu eta, dokumentazioa aztertzetik eratorritako irizpide errazionalak erabiliz, kontratazio-organoak beste jarrera bat hartzen badu.

d) Gutun-azalak lizitazio-iragarkian ezarritako epean – eguna eta ordua – aurkeztuko dira, kontratuaren klausula espezifikoen 19.4 klausulan adierazitako erregistroan, edo Corresoeko bulegoetan, ondoren aipatu bulegora bidaltzeko.

Dokumentazioa Correos bulegoetan aurkezten bada, lizitatzaileak posta elektronikoz jakinarazi beharko du bidalketa egun berean, kontratuaren klausula espezifikoen 19.5 klausulan agertzen den helbidera bidalita. Posta elektroniko bidez egindako jakinarazpen hori baliozkoa izan dadin, jasota geratu beharko da bidali eta jaso izana, noiz bidali den eta noiz jaso den, bai eta zer bidali den (komunikazioaren eduki osoa), nork bidali duen eta nork jaso behar duen. Halakoetan, kopia bat inprimatu behar da. Kopia hori espedienteari erantsiko zaio.

Bidali izanaren jakinarazpenean, kontratuaren eta lizitatzailearen identifikazioa jarri behar da (baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulako a) letran 2) eta 3) apartatuek ezartzen dutenaren arabera). Jakinarazpen horrekin batera, posta-bulegoak emandako frogagiria ere bidaliko da. Lizitazio-iragarkian adierazitako dataren ostean hamar (10) egun natural igaro eta gero dokumentazioa jasotzen ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

12.2.2.2.- Dokumentazioa itzultzea.

Adjudikaziodun izan ez diren eta dokumentazioa berreskuratu nahi duten lizitatzaileek idatziz bidali beharko diote eskaera kontratazio-mahaiko idazkariari –espediente-zenbakia eta dokumentuak jasotzera joango den pertsona fisikoa identifikatuz–, eta administrazio-egoitzetara joan beharko dute dokumentuak jasotzera.

Dokumentuak jasotzera joaten den pertsonaren nortasuna NANarekin edo dokumentu baliokidearekin egiaztatu ondoren egingo da dokumentuen entrega, baldin eta zazpi (7) hilabete igaro badira kontratua formalizatu zenetik eta ez bada errekurtsorik egon. Epe hori amaitu ostean inork ez badu dokumentazioa jaso hilabeteko (1) epean, suntsitu egingo da.

Era berean, jarduera horiek egingo dira, eta epe berberak aplikatu, prozeduran atzera egiten bada edo kontratuari uko egiten bazaio.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

12.3.- Konfidentzialtasuna.

Lizitatzaileren batek uste badu aurkeztu duen dokumenturen bat konfidentzialtzat jo behar dela, beren-beregi adierazi beharko du hori —II.3 Eranskina betez— eta argi eta garbi agerrarazi, gaininprimatuta edo orriaren bazterrean, konfidentzialtzat jo den dokumentuan bertan. Ez bada horrela agerrarazten, dokumentua ez da konfidentzialtzat joko.

II.3 Eranskin horretan, sekretu tekniko eta merkataritzakoekin lotuta egoteagatik eskaintzan konfidentzialtzat jotzen diren informazio eta alderdiak azaltzeaz gain, sekretu horiei **zein arrazoi zehatzengatik** lotzen zaien azaldu beharko dute.

Eskaintza ekonomikoa ez da inola ere izango konfidentziala. Eskaintza ekonomikoa konfidentziala dela esan bada, eskaintzarik egin ez dela ondorioztatuko da.

Konfidentzialtasun-deklarazioak ezin du barne hartu lizitatzaileak aurkeztu duen dokumentazio osoa, ezta eskaintza teknikoa egiaztatzeko dokumentazio osoa ere. Kasu horretan, edo deklarazio hori oker dimentsionatzen denean, kontratazio-organoak erabakiko du (arrazoiak adieraziz) zer datuk edo zer dokumentuk izan behar duten konfidentzialak. Gauza bera egingo du kontratazio-organoak baldin eta deklarazioak ez badu arrazoi egoki eta nahikoa oinarridunik lizitatzaileak konfidentzialtzat jotzeko hala deklaratutako informazioa.

Lizitatzaileak ez badu espresuki adierazi datu eta/edo dokumenturen bat konfidentziala denik, datu edo/eta dokumentu bat ere konfidentziala ez dela ondorioztatuko da. Hala ere, salbuespen moduan eta arrazoituta, kontratazio-organoak konfidentzialtzat jo dezake konfidentzial deklaratu ez den informazioren bat, enpresa-interes legitimoak zaintzearren.

Halaber, eskaintzak aurkeztu ostean ezin izango da adierazi datu batzuk konfidentzialak direla, datu horiek aurkeztean adierazi ez bazen.

Hasierako eskaintzaren barruan ez zegoen dokumenturen bat aurkezten bada adjudikazio-prozeduran, konfidentzialtzat jo ahal izango da dokumentazio berri horren artean dagoen datu edo dokumenturen bat, klausula honen aurreko paragrafoetan azaltzen diren baldintzetan.

12.4.- Dokumentazioa egiaztatzea.

Adjudikazio-prozeduraren barruan nahiz kontratua adjudikatu eta formalizatu ostean, aurkeztutako dokumentuak benetakoak direla egiaztatu ahal izango du botere adjudikatzaileak. Datuak faltsutzea kontratuaren deuseztasun-kausa izan daiteke. Arrazoi horregatik kontratuaren deuseztasun-deklarazioa eginez gero, operadore ekonomikoari leporatu ahal izango zaio ez-betetzea, eta eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio botere adjudikatzaileari.

12.5.- Jakinarazpenak eta komunikazioak.

12.5.1.- Jakinarazi eta komunikatu behar diren jarduketak.

12.5.1.1.- Adjudikazio-erabakia eta SPKLren 44.2 b) artikuluan definitutako izapidetze-egintzak jakinarazi beharko dira.

12.5.1.2.- Honako hauek izango dira komunikazioak: argibide-eskariak, akatsak edo omisioak konpontzeko errekerimenduak, baldintza-agiri honetan aurreikusitako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLren 44.2 b) artikuluan sartzen ez diren bestelako izapide-egintzak.

12.5.2.- Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea.

Eskaintzak bitarteko ez-elektronikoz edo paperez aurkeztea. Proposamenak kontratu honen 19.4 klausula espezifikoan adierazten diren Kontratazio Zuzendaritzaren bulegoetan

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

entregatu beharko dira, edo postaz bidali, lizitazio-iragarkian adierazitako onarpen-epearen barruan, kanpoan identifikatutako HIRU gutun-azal itxiren bidez (A, B eta C).

Jakinarazpen eta komunikazioetarako, II.7 Eranskineko aitorpena aurkeztu behar da, behar bezala beteta eta sinatuta.

13.- A GUTUN-AZALA «AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK»

13.1.- Gutun-azal honetan bildu behar diren dokumentuen zerrenda:

13.1.1.- II.0 eranskina.

13.1.2.- Operadore ekonomikoaren Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB), behar bezala beteta. Agiri hori https://visor.registrodelicitadores.gob.es/home helbidean bete behar da, kontratatzailearen profilean argitaratutako xml fitxategia erabilita.

Halaber, baldintza orokorren 13.3 klausulan jasota dauden kasuetarako egokiak diren EKAB agiriak ere aurkeztuko dira.

13.1.3.- Behin-behineko bermea, kontratuaren klausula espezifikoen 8.1 klausulak hala eskatzen badu.

13.1.4.- Baliabideak adskribatzeko konpromisoa, II.2 Eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

13.1.5.- Prestazioa emateaz arduratuko diren langileen izenak eta prestakuntza profesionala, kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan hala eskatzen bada.

13.1.6.- Operadore ekonomikoak emandako informazioak konfidentzialtzat jotzea, II.3 Eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

13.1.7.- ABEEa formalki eratzeko konpromisoa, II.4 Eranskinaren arabera.

13.1.8.- Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluaren arabera enpresa-talde berekoak diren hainbat operadore ekonomikok aurkezten badute eskaintza, II.5 Eranskina bete beharko da.

13.1.9.- Kontratuaren klausula espezifikoen 1.5 klausularen arabera sortarik badago, II.6 Eranskina bete beharko da eskaintza zein sortatarako aurkezten den adierazteko; eta kontratuaren klausula espezifikoen 20.4 klausulak hainbat sorta integratzen duten eskaintzak aurkezteko aukera ematen badu, eskaintza integratzaile hori zein sorta- konbinaziotarako aurkezten den.

13.1.10.- Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "elektronikoak ez direla", baldintza orokorren 12.5.2 klausulan xedatutako ondorioetarako, II.7 Eranskina bete beharko da.

13.1.11.- Operadore ekonomikoak Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak badira eta kontratua Espainian betearaziko bada, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala balegokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz.

13.1.12.- Europar Batasunekoak ez diren hainbat operadore ekonomiko izanez gero, SPKLren 68.1 68.1 artikuluan araututa dagoen txostena aurkeztu beharko dute. Halaber, kontratua Espainian betearaziko bada, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala balegokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

13.2.- Kaudimena metatzea, ABEEen kasuan:

Aldi baterako enpresa-elkartearen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko edo profesionala zehazteko, operadore ekonomiko bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira.

13.3.- Europako Kontratazio Agiri Bakarrari (EKAB) buruzko erregela zehatzak:

13.3.1.- Kontratua sortaka zatituta badago, eta hautaketa-irizpideak, hau da, kaudimena egiaztatzeko baliabideak, sorten arabera aldatzen badira, EKAB agiri bat aurkeztu beharko da sorta bakoitzeko. Hala eta guztiz ere, kaudimena egiaztatzeko baliabide berberak behar badira sorta guztietarako, eta operadore ekonomikoaren eskaintza lotuko zaien sorta kopuruaren arabera aldatzen badira betekizunak, EKAB bakarra bete beharko da sorta guztietarako.

13.3.2.- Azpikontratistak:

13.3.2.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulako a) letran hala azaltzen bada, operadore ekonomikoek EKABen II. zatiko D atala bete behar dute, eta honako datu hauek jarri behar dituzte:

- azpikontratatzea aurreikusi duten **kontratuaren zatia(k)**,
- azpikontratatzea aurreikusi duten zati bakoitzaren **ehunekoa**
- eta **azpikontratist(ar)en izena**.

13.3.2.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulako b) letran hala azaltzen bada, operadore ekonomikoek, aurreko 13.3.2.1 klausulan jasotako datuez gain, azpikontratatu behar duten pertsonaren EKAB (II. zatiko A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta) aurkeztu beharko dute edo, pertsona bat baino gehiago badira, zenbat pertsona azpikontratatu behar diren eta hainbat EKAB, behar bezala sinatuta.

13.3.3.- Kaudimena kanpoko baliabideen bitartez osatzea: operadore ekonomikoak beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabili nahi baditu, bere EKABa eta entitate horietako bakoitzaren EKABak ere aurkeztu beharko ditu (EKAB bat pertsona edo operadore bakoitzeko), behar bezala sinatuta, eta II. zatiaren A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta; gainera, hala dagokionean, IV. zatia ere bete beharko da.

13.3.4.- ABEEa: enpresa batzuek ABEE batean parte hartu nahi badute, bereizitako EKAB bat aurkeztu beharko dute. Bertan jaso beharko dute II. zatitik IV. zatira eskatzen den informazioa, parte hartzen duen operadore ekonomiko bakoitzeko.

13.3.5.- Baztertzeko arrazoiak: III. zatiko D atalean xedatuta dagoenaren ondorioetarako, baztertzeko arrazoi nazionalak (nazionalak bakarrik) honako hauek dira (SPKLren 71.1 artikuluko d) letra):

- Desgaitasunen bat duten pertsonentzako lanpostuen %2ko erreserbaren kuota ez betetzea, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikuluaren arabera.
- Berdintasun-plana edukitzeko betebeharra ez betetzea Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren, emakume eta gizonen berdintasunari buruzkoaren, 45. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

III.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA

14.- ESKAINTZAK EZ ONARTZEKO ARRAZOIAK, ETA ARGIBIDEAK ESKATZEA

14.1.- Kontratazio-mahaiak eskaintzak ez onartzea erabakiko du baldin eta:

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan aipatuez besteko gutun-azalen batean sartu badute dokumenturen bat, eta ondorioz kolokan jartzen bada eskaintzaren isilpekotasuna.

b) Kontraesanak, omisioak, akatsak edo marratuak badituzte, eta horrela eskaintzaren edukia argi ulertzea eragozten bada.

c) Eskaintzak ez badatoz bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin.

d) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua edo gehieneko unitate-prezioak gainditzen badituzte.

e) Baldintza-agiri honetako eskaintza ekonomikoaren eredutik nabarmen aldatzen badira.

f) Zenbatekoan errore nabarmena ageri badute.

g) Errorea badute edo funtsik ez badute, eta horren ondorioz bideraezinak badira, lizitatzaileak berak onarturik.

h) AKPAn edo PTPAn ezarritako baldintza edo betekizunak betetzen ez badituzte.

i) Irakurtzea edo edukia ikustea eragozten duten birusen bat badute.

j) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "elektronikoak ez direla", lizitazio-iragarkian azaldutako epea amaitu ondoren aurkezten bada eskaintza.

k) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "elektronikoak ez direla", eskaintza baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulan azaldutako epea amaitu ondoren bidali dela jakinarazten bada.

l) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "elektronikoak ez direla", kanpoan identifikatuta (A, B, C) ez dauden gutun- azaletan aurkezten bada eskaintza, edo gutun-azalak itxita aurkezten ez badira.

14.2.- Kontratazio-mahaiak adjudikazio-proposamena egin aurreko edozein unetan eskatu ahal izango ditu eskaintzak hobeto ulertu ahal izateko **argibideak**. Inola ere ez da onartuko lizitatzaileak, argibideak ematean, eskaintzan adierazitako ezer aldatu nahi izatea.

14.3.- Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak Lehiaren Euskal Agintaritzari (LEA) jakinarazi beharko dizkio lizitazio honen esparruan ezagutu ditzakeen balizko egitate edo zantzu guztiak, lehiaren defentsaren alorreko legediaren urraketak izan badaitezke. Bereziki, akordio, erabaki edo gomendio kolektibo, edo lizitatzaileen arteko praktika itundu edo nahita paraleloa den jardueraren zantzu oro, horien helburua kontratazio-prozesuan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea bada edo lehia benetan eragozten, murrizten edo faltsutzen badute edo eragotzi, murriztu edo faltsutu ahal badute; hori guztia, SPKLren 132. eta 150. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Aldi baterako enpresa elkarte (ABEE) batean batuta aurkezten diren enpresen artean kolusio-zantzuren bat hautemanez gero, kontratazio-mahaiak edo -organoak eskatuko die, SPKLren 69. artikuluarekin bat, berariaz eta arrazoibideak emanez justifika ditzatela elkartuta lehiatzeko arrazoiak. Enpresek egindako justifikazioa kontuan hartuta kolusio-zantzuak egotearen oinarriak dauden kasuak, Lehiaren Euskal Agintaritzari (LEA) jakinarazi beharko zaizkio.

15.- AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA

15.1.- Eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaiak bilera egingo du A gutun-azalean garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentuak kalifikatzeko.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Baldin eta ondorioztatzen bada aztertutako dokumentazioa zuzena eta nahikoa dela betekizunak bete direla egiaztatzeko, lizitatzaile guztiak prozeduran onartzen direla erabakiko du.

Baldin eta konpon daitekeen akats edo omisioren bat ikusten badu aztertutako dokumentazioan, hiru (3) egun balioduneko epea emango die dokumentazio hori aurkeztu duten edo zerbait aurkeztu ez duten lizitatzaileei, ikusitako akats edo omisioa konpontzeko behar den dokumentazioa aurkez dezaten.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zuzenketa alde batera utzita, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak egiaztatzeko, aurkeztutako ziurtagiriei eta dokumentuei buruzko argibideak eskatu ahal izango zaizkie lizitatzaileei, edo beste agiri osagarri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango zaie.

Emandako epea amaiturik, zuzentze-fase horretan emandako dokumentazioa aztertuko du kontratazio-mahaiak, eta lizitatzaileak onartuko edo baztertuko diren erabaki. Lizitatzaileren bat baztertzea erabakiz gero, horretarako arrazoiak adieraziko ditu erabakiarekin batera.

15.2.- Hautatutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda kontratatzailearen profilean argitaratuko da eta, hala dagokionez, baztertzeko arrazoiak ere adieraziko dira.

16.- BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEN BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA

16.1- Gutun-azalak irekitzea.

Kontratazio-mahaiak lizitatzaileak onartu edo baztertu diren jakinaraziko du, eta, ondoren, onartutako lizitatzaileek aurkeztutako C gutun-azalak irekiko ditu.

Proposamenak ireki ondoren, eskainitako artikulu guztiek kontratazio-mahaiak kasu bakoitzean egokitzat jotzen duen azterketarako prest egon behar dute, egiaztatzeko. Artikuluen lagina beharrezkoa izan daiteke kontratazio-mahaiak kontratuaren klausula espezifikoen 22. klausulan ezarritako balorazio-irizpideak balora ditzan. Enpresa lizitatzaileek konpromisoa hartu behar dute artikuluak adierazten zaien lokalera eramateko.

Kontratatzailearen profilean argitaratuko da beharrezko informazioa, honako hauen gainean:

- Laginak aurkezteko ordua eta tokia.

- Laginak aurkezteko modua, enpresa lizitatzaileek bete beharko dutena.

Gainera, kontratazio-mahaiak behar bezala egiaztatuta dagoen kanpo-entitate bati eskatu ahal izango dio produktu horietan egokitzat jotzen dituen balorazioak eta entseguak egin ditzala. Horrenbestez, mahaiak laginak ez itzultzea erabaki ahal izango du, ondorengo jardueretan erabiltzeko. Baldintza orokorren 37. klausulan adierazten den bezala, kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke preskripzio teknikoen agirian ezarritako gutxieneko betekizunetakoren bat ez betetzea, ondorengo jarduketa horien ondorioz egiazta badaiteke.

Balio-iritzi bat behar duten eskaintzak aztertzeko, kontratazio mahaiak gehienez ere hiru (3) hilabeteko epea izango ditu.

16.2.- Kasu orokorra: kontratazio-mahaiak ebaluatzea.

Dokumentazioa kontratua sustatzen duen zerbitzuari bidaltzeko erabakia hartu dezake kontratazio-mahaiak, zerbitzuak berak egiazta dezan eskaintzen edukia ez dela PTPAn ezarritako zehaztapenen aurkakoa, eskaintzak balioets ditzan eta txostena egin dezan.

Baldin eta kontratua sustatzen duen zerbitzuak, ebaluazioa egitean, egiaztatu egiten badu eskaintzaren bat baldintza-agirien aurkakoa dela, edo beste gutun-azal batean sartu behar lituzkeen dokumentu edo datuak sartu dituela gutun-azal honetan, txostenean idatziko du

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

inguruabar hori. Txostena egindakoan, kontratazio-mahaiari bidaliko dio eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

16.3.- Salbuespena: aditu-batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak ebaluatzea.

Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.7 klausulak ezartzen badu aditu-batzorde bat edo erakunde tekniko espezializatu bat izendatu behar dela eskaintzaren zati hau ebaluatzeko, izendatutako organoari bidaliko dio dokumentazioa kontratazio-mahaiak, ebaluazioa egin eta txostena egin dezan. Txostena egindakoan, kontratazio-mahaiari bidaliko dio eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

17.- FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA

17.1.- GUTUN-AZALAK IREKI AURREKO JARDUKETAK.

17.1.1.- Balio-iritzi batean oinarritu behar duten irizpideak erabiltzen dira.

Baldintza orokorren 16.2 klausulan aurreikusitako kasu orokorrean, B gutun-azalak ireki aurretik, honako jarduketa hauek egingo ditu kontratazio-mahaiak:

- Bileraren zati publikoa hasi aurretik:
  - Kontratua sustatzen duen zerbitzuak egindako balorazio-txostena aztertuko du, eta eskaintzak balioetsi eta puntuatuko ditu.
  - Baldintza orokorren 14.1 klausulan aurreikusitako kasuetan, eskaintza(k) ez onartzea erabakiko du.
- Bileraren zati publikoa hasi ondoren:
  - Eskaintza bakoitzari emandako puntuak jakinaraziko dizkie ekitaldi publikora bertaratu direnei eta, hala badagokio, onartu ez diren eskaintzen berri ere emango die, ez onartzeko arrazoiak azalduta.

Baldintza orokorren 16.3 klausulan aurreikusitako salbuespenezko kasuan, kontratazio-mahaiak, gutun-azalak ireki aurretik, aditu-batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak emandako puntuak jakinaraziko ditu eta, hala badagokio, onartu ez diren eskaintzen berri ere emango du, ez onartzeko arrazoiak azalduta.

17.1.2.- Ez dira erabiltzen balio-iritzi batean oinarritu behar duten irizpideak.

Gutun-azalak ireki aurretik, zein lizitatzaile onartu diren eta zein baztertu diren jakinaraziko du kontratazio-mahaiak.

17.2.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK IRAKURTZEA.

Kontratazio-mahaiak, aurretiko jarduketak egin ostean, ekitaldi publikoan irekiko ditu baztertu ez diren lizitatzaileek aurkeztutako B gutun-azalak, eta eskaintzak irakurriko ditu.

18.- ESKAINTZAK EBALUATZEA

Jarraian, honako jarduketa hauek egingo ditu kontratazio-mahaiak, beharrezkoak diren bileretan:

18.1.- Egiaztatuko du ea eskaintzaren batek baldintza orokorren 14.1. klausulan ezarritako ez onartzeko arrazoiren bat duen. Halakorik egonez gero, eskaintza ez onartzeko erabakia hartuko du.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

18.2.- Egiaztatuko du ea onartutako eskaintzek kontratuaren klausula espezifikoen 22.3 klausulan ezarrita dauden mugak gainditzen dituzten, eta eskaintzaren batek hala egiten badu SPKLren 149.4 artikuluan aurreikusita dagoena egingo du. Kontratazio-mahaiak erabakiko du zein izango den entzunaldi-epea, eskaintzen ezaugarriak kontuan hartuta, baina gutxienez hiru (3) eta gehienez hamar (10) egun baliodunekoa izango da.

Prozedura hori amaitutakoan, kontratazio-organoari proposatuko dio bete ezin diren eskaintzak onartzea ala ez onartzea.

18.3.- Eskaintzen puntuazioak kalkulatuko ditu eta kalitate-prezio erlazio onena duten eskaintzak zein diren zehaztuko du.

Kalkulu hori egiteko, ez ditu kontuan hartuko ez onartzeko proposatu diren eskaintzak.

19.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Ez dira aurreikusten.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

IV.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

20.- ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA

Kontratazio-organoak ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du esparru-akordioa esleitzea.

Esparru-akordioaren esleipendun izango dira administrazio-agirietan eta agiri teknikoetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten operadore ekonomiko edo enpresa guztiak.

21.- ADJUDIKATU AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

21.1.- Kontratazio-organoak esleipen-proposamena onartu ondoren, eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatzaileei hamar (10) egun balioduneko epea emango zaie, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako inguruabar hauen egiaztagiriak aurkezteko:

1. Jarduteko gaitasuna daukala egiaztatzeko:

1.1.- Pertsona juridikoak diren Espainiako lizitatzaileek honakoa aurkeztu beharko dute jarduteko gaitasuna egiaztatzeko: euren jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen eraketa-eskritura, aldaketen eskritura, estatutuak edo sortze- egintzaren dokumentua, hala badagokio pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan inskribatua.

1.2.- Espainiakoak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak diren lizitatzaileek, SPKLren 84.2 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

1.3.- Atzerriko gainerako lizitatzaileek SPKLren 84.3 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

2. Zerga Administrazioko Estatu Agentziako enpresarien, profesionalen eta atxikitzaileen erroldan edo Zerga Administrazioko Foru Administrazio baliokidean inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria, lizitazio-prozeduran parte hartzen den egunean benetan garatutako jarduera islatu behar duena.

3. Enpresa kontratistaren zein azpikontratisten titulartasun erreala identifikatzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuak definitzen duen zentzuan, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluak ezarritakoaren arabera.

4. Ahalordea: baldin eta eskaintza sinatzen duen pertsona ez bada bere izenean ari, edo lizitatzailea sozietatea edo pertsona juridikoa bada, berariazko ahalorde nahikoa aurkeztu beharko du sinatzaileak. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egon beharko da ahalorde hori, baldin eta, zein motatako pertsona juridikoa den kontuan hartuta aplikatu behar den araudiaren arabera, nahitaez egon behar bada inskribatuta.

5. Kaudimena: kontratuaren klausula espezifikoen 21.1 klausularen arabera gutxieneko kaudimen-betekizun batzuk eduki behar badira, kontratuaren klausula espezifikoen 25.1 klausulan azaltzen den dokumentazioa aurkeztu beharko du lizitatzaileak betekizun horiek egiaztatzeko, salbu eta betekizunen ordez sailkapena erabiltzea erabaki bada eta SPKLren 159.6 artikuluan azaldutako tramitazio bidearen bitartez izapidetzen bada, zeinen aipatutako artikuluaren b) atalean aipatutako kaudimen ekonomikoa eta finantza-kaudimena eta teknikoa edo profesionala salbuesten baitzaie lizitatzaileei.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

6. Enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala: kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan azaltzen bada eskaintzak aurkezteko azken egunean eduki behar dela gaikuntza.

7. Lizitatzaileak kontratua betearazteari adskribatu nahi dizkion baliabide materialak eta giza baliabideak eskura izatea: kontratuaren klausula espezifikoen 25.2 klausulan jasota dagoen dokumentazioa.

8. Kontratuaren indarraldi osoan beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak eskura izatea: lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabiliko baditu, V.1 Eranskinean agertzen den "Beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzeko konpromisoa" aurkeztu beharko du.

9. Kontratatzeko debekurik ez izatea: kontratatzeko debekurik ez izatea egiaztatzen duten dokumentuak, SPKLren 85. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera (V.2 Eranskina).

10. Zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatea: zerbitzu publikoarekin kontratuak egiteko zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak, eta zerbitzu publikoarekin kontratuak egiteko Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiria. Lizitatzaileak lurralde batean baino gehiagotan ordaindu behar baditu zergak, administrazio eskudun guztiek egindako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

11. Bermea: behin betiko bermea eta, hala badagokio, berme osagarria eratu izanaren frogagiria (salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 8.2 klausulan halakorik eskatzen ez bada).

12. Publizitate-gastuak: kontratuaren klausula espezifikoen 7. klausulan hala azaldu bada, dagozkion publizitate-gastuen ordainagiria.

13. Erreserbatutako kontratuak: kontratuaren klausula espezifikoen 20.7 klausularen arabera kontratua erreserbatua bada, lizitatzaileak dokumentu bidez egiaztatu beharko du erreserba horren baldintzak betetzen dituela.

14. Kopia sinplearen bidez aurretiaz aurkeztu zirenen artean eska daitezkeen jatorrizko dokumentuak.

Bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez egin ahal izango dira ziurtagiriak.

Baldintza orokorren 11.5 klausulan azaltzen diren erregistro, zerrenda eta datu-baseetan inskribatzeak klausula horretan azaltzen diren ondorioak izango ditu erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeari dagokionez, betiere dohainik sartu badaiteke horietara.

15. 13. Legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, interes-gatazkarik ez dagoela adierazten duena, bere erantzukizunpean, V.4 Eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

21.2.- Errekerimendua ezarritako epean behar bezala betetzen ez badu, eskaintzan atzera egin duela ulertuko da. Kasu horretan, honako jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZa sartu gabe), zigor gisa; zenbateko hori behin-behineko bermetik hartuko da, baldin eta hori eratu bada, hargatik eragotzi gabe SPKLren 71.2 artikuluko a) letran ezarritakoa**.**

- Dokumentazio berbera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, euren eskaintzak zein ordenatan sailkatu diren kontuan hartuta.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

22.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA ADJUDIKAZIOA JAKINARAZTEA

22.1.- Adjudikazioa lortzen duen proposamenak aurkeztutako dokumentazioa jaso eta bost (5) egun balioduneko epean adjudikatu beharko du kontratua kontratazio-organoak.

22.2.- Adjudikatzeko ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta horrekin batera, hala badagokio, eskaintzaren barruan balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideen bidez ebaluatu diren zatiak balioesteko txostena eta eskaintza anormalki baxuegien justifikazioa aztertzeko txostena; biak ere, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira hamabost (15) eguneko epean.

22.3.- 44. artikuluko errekurtso berezi baten ebazpenaren edukiaren ondorioz kontratazio-organoak kontratua beste lizitatzaile bati adjudikatu behar badio, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaile horri, baldintza orokorren 21. klausulan jasotako dokumentazioa aurkez dezan.

23.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

23.1.- Kontratua SPKLren 153. artikuluak xedatzen dituen baldintza eta epeetan formalizatuko da, eta aurretiaz honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) ABEEa eratzeko eskritura publikoa, adjudikaziodunek ABEE batean elkartuta parte hartu badute.

b) Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan zehazki eskatzen diren aseguruen polizak; poliza horietan aseguratuta egon beharko dute kontratistak, azpikontratistak eta kontratuaren klausula espezifikoen 19.1 klausulan adierazitako botere adjudikatzaileak. Gainera, polizaren ordainagiriak ere aurkeztu behar dira.

c) Enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala, kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan zehaztuta badago, eta, gainera, klausulan azaldu bada kontratua formalizatu baino lehen eduki behar dela gaikuntza hori.

d) Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 26.4 klausulan azaltzen den dokumentazioa.

e) Kontratua gauzatzeko, kontratistak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren izenean, zerbitzariak non egongo diren eta zerbitzari horiei lotutako zerbitzuak nondik emango zaizkien adierazten duen adierazpena.

23.2.- Formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, gehienez ere hamabost (15) eguneko epean, perfekzionatzen denetik aurrera zenbatuta. Halaber, erregulazio harmonizatuko kontratua bada, formalizazioari buruzko iragarkia bidaliko da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, gehienez ere hamar (10) eguneko epean, formalizatzen denetik aurrera.

23.3.- Adjudikaziodunari leporatu ahal zaizkion arrazoiengatik ezinezkoa bada kontratua legearen arabera ezarritako epeetan formalizatzea, honako hau egingo da:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %3 eskatuko zaio (BEZa sartu gabe), zigor gisa; zenbateko hori behin-behineko bermetik hartuko da, baldin eta hori eratu bada, hargatik eragotzi gabe SPKLren 71.2 artikuluko b) letran ezarritakoa.

- Kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatzea, eskaintzak zein ordenatan sailkatu diren kontuan hartuta, baldintza orokorren 21.1 klausulan jasotako dokumentazioa errekeritu eta aurkeztu ondoren.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

23.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 8.1 klausulan behin-behineko bermea eskatu bada, automatikoki azkenduko da kontratua formalizatu ondoren, eta berehala itzuliko zaie kontratista bihurtu ez diren lizitatzaile guztiei. Bermea itzultzeko, aurkezteko erabili den araubide berbera erabiliko da.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

V.- KONTRATUA BETEARAZTEA

24.- KONTRATUAREN JARRAIPENERAKO BATZORDE TEKNIKOA

Esparru-akordioaren jarraipena egiteko batzorde tekniko bat (aurrerantzean, "Batzordea") arduratuko da haren jarraipena egiteaz, ikuspegi teknikoa kontuan hartuta.

Batzordea honako hauek osatuko dute:

- Haurreskolak Partzuergoko kontratuaren arduraduna

- Haurreskolak Partzuergoko profesional taldeko ordezkariak

Bereziki, Batzordeak esparru-akordio honetan ezarritako irizpide teknikoen aplikazioari eta zehaztutako helburuen betetze-mailari buruzko azterketa orokorrak egingo ditu. Honetaz gain, Batzordeari eginkizun hauek dagozkio:

- Eskaerak behar bezala gauzatu direla baliaztatzea.

- Lizitazio-prozesuetan tresnak eskuratzeko gaitasuna duten erosketa-unitateei euskarri teknikoa ematea.

- Kontratu eratorriak behar bezala gauzatu direla baliozkotzea.

- Kontratuaren enpresa esleipendunen betebeharren betetze-mailaren kontrol teknikoa egitea, eta, hala badagokio, zigorren proposamena egitea, ez-betetzea edo atzerapena gertatuz gero.

- Kontratazio-organoari esparru-akordioaren jarraipenaren berri ematea.

Eginkizun horiek betetzeko, Batzordeak honako ekintza hauek egingo ditu:

- Tresneria eskuratzeko eskumena duten Haurreskolak Partzuergoko erosketa-unitateei inkesta egitea eta lortutako datuak ustiatzea.

- Emandako elementuak ebaluatzeko ikuskapenak eta bisitak: Batzordeak ahalmena du esleitutako ondasuna fabrikatzeko edo egiteko prozesua ikuskatzeko eta, hala eskatzen duenean, informazioa jasotzeko. Gainera, kalitate-kontroleko enpresak edo laborategiak aldez aurretik izendatuta, erabilitako materialen eta ondasun eta produktu elaboratuen probak, analisiak eta saiakuntzak egitea agindu dezake, egiaztatzeko bat datorrela hornitzaileak bete beharreko kalitate-mailarekin eta egokitasun-mailarekin.

25.- KONTRATUA BETEARAZTEA: HORNIDUREN, FABRIKAZIOA DAKARTEN KONTRATUEN ETA ERRENTAMENDUEN (EROSTEKO AUKERAREKIN ZEIN GABE) BALDINTZA ESPEZIFIKOAK. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

25.1.- Klausula orokorrak.

25.1.1.- PTPAn eta AKPAren kontratuaren klausula espezifikoen 6. klausulan (baldintza orokorren 8. klausularekin bat) eta 15.1 klausulan adierazten diren epean eta lekuan entregatu behar ditu kontratistak kontratuaren objektu diren ondasunak.

25.1.2.- Baldin eta entrega partzialak ezarri badira, klausula horretan adierazitako aldizkakotasunaren arabera entregatu behar ditu kontratistak kontratuaren objektu diren ondasunak, PTPAn xedatutakoaren arabera eskatutako kopurua betez.

25.1.3.- Kontratistaren konturakoak izango dira ondasunak kontratuaren klausula espezifikoen 15.1 15.1 klausulan adierazitako lekura eraman eta entregatzeko gastuak, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 18.1 klausulan kontrakoa ezartzen bada.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

25.1.4.- Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 5.5 klausulan adierazi bada ordainketa, eskudirutan egiteaz gain, mota bereko beste ondasun batzuen bitartez ere egin behar dela, PTPAn zehaztutakoari jarraituz erretiratu beharko ditu kontratistak botere adjudikatzaileak entregatutako ondasunak.

25.1.5.- Akatsik gabe eta erabiltzeko moduan entregatu beharko dira ondasunak, baldintza-agiri honetan eta PTPAn ezarritakoaren arabera.

25.2.-Klausula espezifikoak.

25.2.1.- Fabrikazio-kontratuak.

Fabrikazio-kontratua izanez gero, kontratuaren klausula espezifikoen 18.4 klausulan zehaztu diren SPKLren obra-kontratuen arauak aplikatuko dira.

Ondasuna fabrikatzeko edo egiteko prozesua ikuskatzeko eta haren berri izateko eskumena dauka botere adjudikatzaileak. Halaber, kontratistari agindu ahal izango dio, kontratuaren klausula espezifikoen 18.4 klausulan adierazitako mugaraino, analisiak egiteko, eta/edo saioak eta probak egin ahal izango ditu erabiliko diren materialekin, eta kalitate-kontrolerako sistemak ezarri eta itundutakoa zehatz-mehatz betetzeko bidezko iritzitako xedapenak eman.

Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 18.4 klausulan adierazi bada botere adjudikatzaileak entregatuko dituela materialak, guztiak edo batzuk, material horiek kontratistaren ardurapean utzi direla ondorioztatuko da. Kontratuaren objektu diren ondasunak behar bezala jasotzen direnean iraungiko da erantzukizun hori.

25.2.2.- Errentamendu-kontratuak.

25.2.2.1.- Errentamendu-kontratuen klausula orokorrak.

Botere adjudikatzailea ez da inola ere izango errentan emandako ondasunaren jabea, ez eta ondasun horren ordezkoen eta/edo sar daitezkeen beste pieza batzuena ere, ez baldin badu erosketako aukeraren eskubidea erabiltzen.

Kontratistak botere adjudikatzailearen esku ipini behar du ondasuna, entregatuz edo, hala badagokio, sartzeko eskubidea lagaz, baldintza-agiri honetan eta PTPAn ezarritakoari jarraituz. Errentamenduaren objektu den ondasuna hartzen denean hasiko da kontratua.

Erabiltzeko baldintza ezin hobeetan mantendu beharko du ondasuna kontratistak. Horretarako, behar diren konponketak egin beharko ditu kontratistak, baldintza-agiri honetan eta PTPAn xedatutakoaren arabera ondasunari eman zaion erabileran erabili ahal izateko moduko egoeran egon dadin ondasuna.

Konpondu behar izanez gero, ondasuna ordezteari buruz PTPAn xedatutakoa bete beharko da. Baldin eta PTPAn ez bada horrelakorik aurreikusi, antzeko beste ondasun batekin ordeztu beharko du ondasuna kontratistak, behin betiko edo konponketa egin bitartean, kontratuaren arduradunak beharrezkoa dela uste duenean eta horretarako arrazoiak azaltzen dituenean.

Kontratistak ordaindu beharko du mantentze-lan hori, baina salbuespena izango da kontratuaren klausula espezifikoen 18.4 klausulan ezartzen bada botere adjudikatzaileak ordaindu behar dituela mantentze-kanonaren zenbatekoak.

Era berean, kontratistak eman beharko ditu kontratuaren klausula espezifikoen 18.4 klausulan zehaztutako zerbitzu osagarriak, halakorik zehaztu bada.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Nolanahi ere, kontratista da kontratua behar bezala betearaztearen inguruko arduradun bakarra botere adjudikatzailearen aurrean. Horrenbestez, kontratua indarrean dagoen bitartean botere adjudikatzaileak ondasuna baketsuki erabili ahal izango duela bermatu beharko du, eta, beharrezkoa izanez gero, antzeko beste batekin ordeztu.

25.2.2.2.- Erosteko aukerarik gabeko errentamendu-kontratua. Ondasuna itzultzea.

Kontratua amaitutakoan, kontratuaren klausula espezifikoen 18.4 klausulan adierazitako lekuan eta ezarritako baldintzen arabera itzuliko da ondasuna.

25.2.2.3.- Erosteko aukeradun errentamendu-kontratua. Erosteko aukera erabiltzea.

Ez bada kontrakoa adierazten kontratuaren klausula espezifikoen 18.4 klausulan, erosteko aukeraren eskubidea doakoa da.

Erosteko aukera erabili ahal izateko, ezinbestekoa da kontratazio-organoak, inguruabarrak kontuan hartuta, arrazoi bidez ondorioztatzea –eta hala agerraraztea espedientean– SPKLren 28. artikuluan zehaztuta dauden beharraren, egokitasunaren eta efizientziaren arrazoiei erantzuten diela ondasunaren erosketak.

Ondasuna eskuratzeko prezioari dagokionez, kontratazio-organoak erosteko aukera erabiltzea erabakitzen den momentuan ondasunak merkatuan duen balioaren araberakoa izango da. Ondasunaren merkatuko balioa kalkulatzeko, kontuan hartuko da kontratuaren klausula espezifikoen 18.4 klausulan xedatutakoa. Prezio horren barruan, zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak egongo dira sartuta, bai eta kontratuaren baldintzak betetzeak dakarren beste edozein gastu ere. BEZa partida independente gisa aipatuko da.

Baldintza orokorren 31.2 eta 31.3 klausuletan xedatutakoaren arabera ordainduko da ondasunaren prezioa.

PTPAn ezarrita dauden denbora-mugen barruan erabili ahal izango da erosteko aukera.

Erosteko aukeraren eskubidea erabiltzea erabakitzen bada, prozedura honi jarraituko zaio:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena, erosteko aukera erabiltzea justifikatzen duten beharraren, egokitasunaren eta efizientziaren arrazoiak zehaztuz.

b) Gastua baimentzeko kontabilitate-agiria edo kreditua badagoela egiaztatzeko ziurtagiria, eta kontrol ekonomiko-fiskalaren aurretiazko fiskalizazio-txostena, salbuetsita ez badago.

c) Txosten juridikoa.

d) Kontratazio-organoaren ebazpena.

e) Jakinarazpena kontratistari.

25.2.2.4.- Erosteko aukeradun errentamendu-kontratua. Erosteko aukera ez erabiltzea.

Baldintza orokorren 25.2.2.2 klausulan xedatutakoa aplikatuko da.

25.2.3.- Telekomunikaziorako edo informazioa tratatzeko ekipoak eta sistemak, horien gailuak eta programak, eta horien gaineko erabilera-eskubidea lagatzea.

25.2.3.1.- Baldin eta kontratuaren objektua horiek eskuratzea bada, eta, kontratuaren klausula espezifikoen 1.4 klausularen arabera PTPAn adierazi bada mantentze- lana

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

ere eman behar dela, eskainitako gailu edo elementu guztien mantentze-lana egin beharko du kontratistak, nahiz eta berak fabrikatutakoak ez izan. Ondorio horietarako, mantentze-lanen barruan prestazio hauek daudela ondorioztatuko da: prebentziozko berrikuspenak egitea, makinen edo gailuen matxurak konpontzea, piezak aldatzea, matxuratutako ekipoa ordezteko erreserbako bat ekartzea eta programak eguneratu edo egokitzea. Eskaintzan ezarritako eta PTPAn zehaztutako zehaztapenen arabera eman beharko ditu kontratistak mantentze-lanen barruan dauden prestazioak.

25.2.3.2.- Baldin eta kontratuaren objektua errentamendua bada, baldintza orokorren 25.2.2 klausulan xedatutakoa aplikatuko da. Horrenbestez, ondasunen mantentze-lana barnean egongo da baldintza orokorren 25.2.2 eta 25.2.3.1 klausuletan ezarritako baldintzen arabera.

25.3.- Aplikatu behar diren beste klausula batzuk.

25.3.1.- Kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan ezarritakoa betetzea.

Kontratua betearaztean zorrotz beteko da kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan, kontratistaren eskaintzan eta hori guztia betearazi edo interpretatzeko kontratuaren arduradunak idatziz emandako jarraibideetan ezarrita dagoena.

25.3.2.- Baimenak.

Kontratistak eskuratu behar ditu prestazioa emateko behar diren baimen eta lizentzia publiko nahiz pribatu guztiak, baita sortzen diren gastuak ordaindu ere.

25.3.3.- Aseguruak.

Kontratistak nahitaezko aseguru guztiak kontratatu behar ditu, baita kontratatuta mantendu ere, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan ezartzen direnak.

25.3.4.- Lankidetza.

Kontratistak inolako kostu gehigarririk gabe eman behar dizkio botere adjudikatzaileari kontratuaren objektua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak; adibidez: azalpen-bileretara joatea, jendeari informazioa ematea… Era berean, ondasuna botere adjudikatzailearen esku zein lekutan utzi den, horietarako sarbide librea eman beharko dio kontratuaren arduradunari, baldin eta ez bada botere adjudikatzailearen instalazioa.

25.3.5.- Kontratistaren erantzukizuna.

Kontratistak erantzun beharko du ondasunak entregatu aurretik galdu edo matxuratzen badira edo kaltea jasotzen badute, honako kasu hauetan izan ezik: botere adjudikatzailea jasotzeko orduan berandutu bada, ondasunak formalki eskuratzeko ekitaldia ondasunak entregatu ondoren egin bada eta ondasun edo produktuak galkorrak badira (hargatik eragotzi gabe, kasu honetan, kontratistak ezkutuko akatsengatik duen erantzukizuna).

Kontratua betearazteak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei kalte-galerak sortuz gero, kontratistak kalte-ordaina eman beharko du, SPKLren 196.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Hornidura-kontratu batzuetan baliteke botere adjudikatzaileak jartzea beharrezko material guztiak edo batzuk. Halakoetan, kontratistaren ardurapean utzi direla ondorioztatuko da, eta kontratistak zaindu eta atzera itzuli beharko ditu. Ondasun horiek zaintzeari edo galtzeari dagokionez, Kode Zibilean, Merkataritzako Kodean eta Zigor Kodean xedaturik dagoena bete beharko da.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

26.- BETEARAZTEARI ADSKRIBATU BEHARREKO BALIABIDEAK

Kontratista behartuta dago baliabideak adskribatzeko konpromisoan adierazitako baliabideak, halakorik egonez gero, kontratuaren betearazpenari adskribatzera (II.2 Eranskina), eta horrez gain, kontratuaren betearazpena kontratu-dokumentuetan ezarritako baldintza eta epeen arabera egiteko behar diren baliabideak ere adskribatu beharko ditu.

Adierazitako baliabide materialak ordeztu nahi badira, ezinbestekoa izango da aldez aurretik jakinarazpena egitea kontratuaren arduradunari. Hark ziurtatuko du, emandako ziurtagirien bitartez, proposatutako baliabideak nahitaezko betekizunak betetzen dituela, eta zazpi (7) egun balioduneko epea izango du baimena jakinarazteko. Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu baliabideak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Kontratistak beste baliabide bat proposatu ahal izango du.

Giza baliabideak ordeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da klausula honetan ezarritakoa betetzea.

Prozedura eta baldintza hauen arabera ordeztu ahal izango da:

a) Kontratistak eskatutako aldaketa: arrazoi justifikatuak direla-eta ordezpenen bat egin behar badu, idatziz jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari. Hamabost (15) egun baliodun lehenago jakinarazi beharko du –arrazoia ez bada aldi baterako lanerako ezintasuna edo heriotza–, eta datu hauek adierazi beharko ditu:

- Ordeztu nahi den pertsona nor den eta zergatik ordeztu nahi den.
- Ordezkoa izateko hautagaiaren proposamena, ordezko izateko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak ere aurkeztuta.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezpena baimenduko du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Beste hautagai bat proposatu ahal izango du kontratistak.

b) Botere adjudikatzaileak eskatutako aldaketa: kontratua behar bezala betearazteko ordespenen bat egin behar dela uste badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, arrazoiak adierazita. Kontratistak, hamabost (15) egun balioduneko epean, betekisunak betetzen dituen hautagai bat propostauko du gutxienez, hori ziurtatzen duten ziurtagiriak aurkeztuta.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezpena baimenduko du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Kontratistak beste hautagai bat proposatu beharko du, aurreko apartatuan aipatu diren baldintzei jarraituz.

Halaber, arau berak aplikatuko zaizkie kaudimena egiaztatzeko emandako baliabideei, baita kontratistak lizitazio-fasean beste entitate batzuen kaudimena eta/edo baliabideak aurkeztu baditu ere.

27.- BETEBEHARRAK LAN ARLOAN, GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOAN ETA LANEKO OSASUNAREN ARLOAN

Kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak, eta, bereziki, honako hauek:

27.1.- Garatu beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan-ordenantza eta hitzarmen kolektibo horietan ezarritako xedapenak.

27.2.- Kontratistak langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

27.3.- Halaber, indarreko araudiak lan-arriskuak prebenitzeko ezarritako betebeharrak beteko ditu eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, betebehar hauek bete dituela frogatu behar du:

a) Indarreko legeriarekin bat datorren prebentzio-antolamendua ezarri.

b) Lan-arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratu, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onetsi zuen Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren araberako lan-arriskuen prebentzio-plan bat ezarri eta aplikatuz. Baldintza hori frogatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEren segurtasun- eta osasun-sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita edukitzearekin, baldin eta sistema horrek ebaluatzen eta egiaztatzen badu eskatzen diren neurriak betetzen diren ala ez. Beste edozein bide egokiren bidez ere froga daiteke betebehar hori bete den.

c) Kontratatutako jardueraren arriskuak ebaluatu eta prebentzio-jarduera planifikatu.

d) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen V. kapituluan ezarritako kontsulta eta partaidetza nola gauzatu den arautzen duen idatzizko prozedura bat eduki edo, hala badagokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak.

e) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen diren edo ez kontrolatzeko prozedura edukitzea eta, beharrezkoa bada, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko ezarritako diziplina-neurriak hartzea.

f) Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio-baliabideak eduki beharra eragiten duten lanpostuen eta/edo jardueren zerrenda eduki.

g) Kontratuaren betearazpenean parte hartzen duten langile guztiek, enpresakoek zein kanpokoek, sartzerakoan arrisku espezifikoei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa jaso dutela egiaztatu, bai eta bere jarduerari eragiten dioten arriskuei buruz behar duten prestakuntza jaso dutela ere (azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak, urriaren 18ko 32/2006 Legea eta abuztuaren 24ko 1109/2007 Errege Dekretua), lan-arriskuen prebentziorako planaren prozeduraren arabera. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko beharrezko prestakuntza eman dela.

h) Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak eman izanaren egiaztagiria eduki, beharrezkoak balira.

i) Jangela- eta atseden-zerbitzu egokiak, higiene-zerbitzuak eta aldagelak eman, langileen kopurua eta lan-eremuen kokapena kontuan hartuta.

j) Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatu, langileen atseden-egunak errespetatuz eta aparteko orduak salbuespenezko kasuetan bakarrik eginez.

27.4.- Kontratistak kontratuaren betearazpenaren zati bat azpikontratatzen badu, aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratatuei, eta kontratazioa egin duen botere adjudikatzaileari eman.

27.5.- Langileek lanean dabiltzala istripuren bat izanez gero edo kalteren bat jasanez gero, indarreko arauek xedatutakoa bete behar du adjudikaziodunak; berak edukiko du horren erantzukizuna, inola ere ez botere adjudikatzaileak.

28.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua betearazteko baldintza berezi hauek eta kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan jasota daudenak, kontratistak zein azpikontratistek bete beharko dituzte.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

28.1.- Hizkuntza arloko baldintzak.

28.1.1.- Botere adjudikatzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua betearazteari begira, honela ulertuko da "normalean euskara erabiliko da" esaldia:

a) - Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek, kontratua gauzatzeko eginkizunetan botere esleitzailearengana jotzen badute, hizkuntza horretan hitz egingo dute hasieran. Botere esleitzailea euskaraz zuzentzen bazaie kontratua gauzatzeari atxikitako langileei, baldin eta hizkuntza hori behar bezala ezagutzen ez badute, kontratistak beharrezko bitartekoak edo euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileak jartzen saiatuko da, kontratua gauzatzearen ondoriozko botere esleitzailearekiko harremana euskaraz garatu ahal izan dadin.

b) - Idatzizko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara aukeratzen badute.

28.1.2.- Kontratistak euskara erabili behar du produktuaren etiketa eta/edo bilgarrietan, baita produktuaren dokumentazio teknikoan eta erabilera-eskuliburuan ere. Horretarako, hizkuntza ofizial bietan (euskaraz eta gaztelaniaz) emango ditu kontratuaren objektu diren ondasun edo produktuen erabilera-eskuliburuak edo dokumentazioa, baita softwareen testu- eta soinu-interfazeak ere.

28.2.- Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzen zaiela egiaztatzea:

28.2.1.- Kontratuaren arduradunari igortzea, hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda xehatua, haien parte-hartzea perfekzionatzen denean, bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazioaren edo horniduraren baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko lotura baldin badute.

28.2.2.- Kontratuaren arduradunari igortzea, hala eskatzen duenean, aurreko puntuan azaldu diren azpikontratistei edo hornitzaileei ordaindu izanaren frogagiria, behin prestazioa amaituta, SPKLren 216. artikuluan eta Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako legezko ordainketa-epeen barruan.

28.3.- Datuen babesari dagokionez:

Kontratua gauzatzeak kontratistari datuak lagatzea dakarrenean, kontratistak Europar Batasuneko eta Espainiako estatuko datuen babesari buruzko araudia bete beharko du.

28.4.- Ingurumen arlokoak: Hornidurak, hala badagokio, ahal den neurrian enbalajerik gabe edo ahalik eta enbalaje gutxienekin entregatuko dira.

Enbalajerik gabe entregatu ezin bada, esleipendunak izango du enbalajea kentzeko ardura, salbu eta horniketa jasotzeaz arduratzen den pertsonak uste badu enbalajea beharrezkoa dela hornitutako produktua kontserbatzeko.

Gainera, edozein motatako dokumentazioa (fakturak, aurrekontuak…) hala badagokio, elektronikoak edo telematikoak izan beharko dira.

29.- KONFIDENTZIALTASUNA

Nolanahi ere, esleipenaren publikotasuna eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioa kontuan hartuko dira, SPKLren 133. artikuluaren arabera, kontratazio-organoak ezin izango du zabaldu enpresek konfidentzialtzat jotzen duten informazioa.

Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke, baldin eta hirugarrenei zabaltzea haien interes komertzial legitimoen aurkakoa izan badaiteke, sektoreko enpresen

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke edo Datu Pertsonalak Babesteko Legean ezarritako debekuen barruan badaude.

Kontratazio-organoak kontuan har dezan, beharrezkoa denean, enpresei eskatuko zaie konfidentzialtzat jotzen dituzten eskaintzako informazioak eta dokumentuak konfidentzialtzat jotzeko.

Era berean, kontratistak eskura duen informazio guztia konfidentziala da. Kontratistak eta kontratua gauzatzeko izendatutako pertsonek ezin dute beretzat inolako daturik erabili, ezta hirugarrenei eman ere, kontratazio-organoaren baimenik gabe; eta eskura dituzten baliabide guztiak jarri behar dituzte, edozein informazio konfidentziala eta isilpekoa izan dadin.

Aurreko edozein pertsona fisikok edo juridikok konfidentzialtasun-betebeharra eta, hala badagokio, sekretu profesionalaren betebeharra urratuz gero, dagozkion erantzukizunak eta kalte-galerak eskatuko dira, aplikatzekoa den araudiaren arabera. Betebehar horiek bete beharko dira, kontratu-harremana amaitu bada ere.

Nolanahi ere, datu pertsonalen tratamendua eskatzen ez duten lanak egitean, debekatuta egongo da datu horietarako irispidea izatea, eta sekretupean gorde beharko dira jakin ahal diren datuak.

29.1.- Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen tratamendutzat hartuko dira automatizatutako edo automatizatu gabeko eragiketa eta prozedura teknikoak, baldin eta pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei buruzko edozein informaziori eragiten dieten komunikazioen, kontsulten, interkonexioen eta transferentzien ondoriozko datuak biltzea, grabatzea, gordetzea, lantzea, aldatzea, blokeatzea eta ezereztea ahalbidetzen badute.

Kontratuak datu pertsonalak tratatzea edo enpresa kontratistak edo azpikontratistak izaera horretako datuak eskuratzea badakar, SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoari eta arau hauei jarraituko zaie:

1. Kontratistak tratamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera baino ez ditu tratatuko datuak.

2. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak kontratuaren xedea betetzeko baino ez dira erabiliko, eta ezin izango dira erabili adierazitakoa ez den beste helburu baterako.

3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei emango. Horretarako, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo horiekin sortutako fitxategiak ez emateko, transferitzeko, lagatzeko edo komunikatzeko, ez ahoz, ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paperean, ez sarbide informatikoaren bidez, ezta bistaratzeko ere.

4. Kontratistak eta kontratuaren xede den prestazioan esku hartzen duten langile guztiek Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan aipatzen den sekretu-betebeharra bete beharko dute. Betebehar horrek iraun egingo du kontratua iraungi ondoren ere, dela kontratua bete delako, dela kontratua suntsiarazi delako.

5. Kontratistak konpromisoa hartzen du datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen neurri teknikoak, administratiboak eta antolakuntzakoak hartzeko, beharrezkoak baitira kontratu honen xede diren lanak egiteko tratatutako datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:

- Horri dagokionez, enpresak lanak hasi aurretik zerrenda bat eman beharko dio kontratazio-organoari, datu pertsonaletara sarbidea duten langile guztien izen-abizenak, eginkizunak eta lana egingo duten lekua adierazita. Kontratua gauzatzen den bitartean langileak sartu edo baja eman behar badira, enpresa esleipendunak beste zerrenda bat emango du, gehienez ere astebeteko epean, gertaera hori gertatzen denetik zenbatzen hasita. Enpresa esleipendunak eta harreman horietan agertzen diren langile guztiek konpromisoa hartu beharko dute, formalki eta idatziz, lanbide-sekretua gordetzeko tratatutako datuei dagokienez.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

- Esleipendunak agiri teknikoetan zehazten diren tratamendu-zentroei, lokalei, ekipoei, sistemei eta programei dagozkien segurtasun-neurriak inplementatu beharko ditu.

- Kontratuaren xede den prestazioa amaitutakoan, esleipendunak euskarri guztiak itzuli beharko ditu, edo datu pertsonalak dauzkaten fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu. Edozein berreskuratze-prozesu aplikatzea ezinezkoa den moduan egingo da suntsipena. Esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatutako akta baten bidez egiaztatuko da fitxategiak itzuli edo suntsitu direla.

6. Kontratatutako erakundea datu pertsonalen lagapen-hartzailea bada hirugarrenari aplika dakiokeen legezko betebehar edo gaikuntza baten arabera edo datuak babesteko araudian aurreikusitako beste edozein babes juridikoren arabera, bai Haurreskolak bai erakunde kontratista tratamendu-jardueren erantzukidetzat hartuko dira.

Horrela, erakunde bakoitza arduratuko da DBEOren printzipioak betetzeaz eta interesdunei tratamenduaren berri emateaz, kontratuaren edo zerbitzuaren xedearen arabera datuak lagatzeko aukera adierazten duten klausulen bidez.

Interesdunek eta legitimazioa dutenek eskubideak baliatzeko eskaerak egiten badituzte eta eskaera horrek erakunde lagatzailearen datuei eragiten badie, hala nola lagapenerako baimena baliogabetzeari edo beste edozein motari, eskaera jasotzen duen erakundeak berehala jakinaraziko dizkio datuak lagapen-hartzaileari.

Alderdiek segurtasun-neurriak aplikatu beharko dizkiete adingabeen datuen transmisioei, informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko, bai eta alderdien arteko harreman juridikotik kanpoko hirugarrenei informazioa eskuratzea eragozteko ere.

29.2.- Tratamendu-eragilearen estipulazioak.

Klausula honetako betebeharrek eratzen dute, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (aurrerantzean DBEO) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 28.3 artikuluan eskatzen den tratamenduaren enkargu-kontratua, tratamenduaren organo arduradunaren eta kontratistaren artean sinatuko dena tratamendu- eragile gisa jarduten duenean.

Baldintza-agiri honetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusi bezala ordainduko dira betebehar horiek betetzeko egin behar diren prestazioak; era berean, zerbitzu-kontratu honen iraupen bera izango dute eta, luzatzekotan, kontratuaren epe berberetan luzatuko dira. Hala eta guztiz ere, kontratua amaitzean, indarrean jarraituko du sekretu-eginbeharrak, denbora-mugarik gabe, betearazpenean zerikusia duten pertsona guztientzat.

Kontratu honen xedea betetzeko, ez da beharrezkoa kontratistak tratamenduaren ardura duen organoaren ardurapeko beste datu pertsonalik eskuratzea.

Kontratua gauzatzean gorabeheraren bat gertatuz gero, eta, horren ondorioz, tratamenduaren ardura duen organoaren ardurapeko datu pertsonalak ustekabean edo gorabeheraz eskuratu behar badira, kontratistak tratamenduaren ardura duen organoari jakinarazi beharko dio, zehazki, datuak babesteko ordezkariari, ahalik eta arretarik handienarekin eta, gehienez ere, 72 orduko epean.

Kontratistak betebehar hauek betetzen dituela bermatu beharko du, gutxienez, DBEOren 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera:

a) Baldintza-agiri honetan eta kontratua betearazteko aplikatu behar diren gainerako kontratu-dokumentuetan dokumentatuta dauden jarraibideen arabera tratatuko ditu datu pertsonalak, bai eta tratamenduaren arduradunak unean-unean emango dizkion jarraibideen arabera ere, horrelakorik balego.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Kontratistak berehala jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunari baldin eta, bere ustez, jarraibideren bat ez badator bat unean-unean aplikatu behar den datu pertsonalen babesari buruzko araudiarekin.

b) Datu pertsonalak ez ditu erabili edo aplikatuko kontratuaren objektua betearaztea ez den beste helbururen batekin.

c) Segurtasun-irizpideei eta DBEOren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz tratatuko ditu datu pertsonalak; era berean, eskuratu ahal izango dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren segurtasuneko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartuko ditu.

d) Erabateko konfidentzialtasuna mantenduko du kontratua betearazteko eskuratu ahal izango dituen datu pertsonalei buruz, bai eta datuen tratamendutik eskuratuko dituenei buruz ere, kontuan hartu gabe zein euskarritan jaso dituen datuok. Betebehar hori zabaldu egingo da kontratistaren kontura datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte har lezakeen pertsona guztietara. Kontratistak esan beharko die mendeko pertsona horiei sekretu-eginbeharra bete behar dutela, eta zerbitzua ematen amaitu ondoren edo bertatik bereizi ondoren ere mantendu beharko dela eginbehar hori.

e) Baldintza-agiri honen objektu diren datu pertsonalak tratatzeko baimena izango duten pertsonen zerrenda egin beharko du. Halaber, bermatu egin beharko du pertsona horiek konpromisoa hartzen dutela, beren-beregi eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko edo bidezko segurtasun-neurriak betetzeko, behar bezala jakinarazi beharko zaizkiela. Gainera, tratamenduaren arduradunaren eskura izango ditu egiaztagiri horiek.

f) Bermatu egingo du datu pertsonalen babesari buruzko beharrezko prestakuntza emango diela datuok tratatzeko baimena duten pertsonei.

g) Datu pertsonalak ez dizkie hirugarrenei lagako (komunikatuko), ez eta kontserbatzeko ere; salbuespena izango da tratamenduaren arduradunaren aurretiazko eta beren- beregiko baimena izaten bada kasu bakoitzean.

h) Datuak babesteko ordezkaria izendatu beharko du, baldin eta DBEOren arabera beharrezkoa bada edo borondatez hala erabakitzen bada, eta izendapen horren berri eman beharko dio tratamenduaren arduradunari, baita datu pertsonalak babesteko kontratistak ordezkari gisa izendatu d(itu)en pertsona fisikoa(k) nor d(ir)en eta harekin/haiekin harremanetan ipintzeko datuak ere (tratamendu-eragilearen ordezkariak), datu pertsonalen tratamenduari buruzko araudia betetzeko arduraduna(k) izango d(ir)ela alderdi legal, formal eta segurtasunekoetan.

i) Tratamenduaz arduratzen den organoaren aukeran, honako hauek itzultzea edo suntsitzea: eskuratu dituen datu pertsonalak, kontratistak tratamenduaren ondorioz sortutakoak, eta datu horietako edozein jasotzen duten euskarriak eta dokumentuak, behin agiri honen xede den kontratu-prestazioa amaituta. Ez dira suntsituko legeak edo Europako Erkidegoko zuzenbideko arauek baimentzen edo eskatzen badituzte.

Hala ere, tratamendu-eragileak datu pertsonalak kontserbatu ahal izango ditu tratamenduaren organo arduradunarekin izandako harremanetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean. Horrelakoetan, blokeatuta eta ahalik eta denborarik laburrenean kontserbatuko ditu datu pertsonalak, eta modu seguruan eta behin betiko suntsituko ditu epe hori amaitzean.

j) Datu pertsonalen tratamendua gauzatzea tratamendu-sistema eta -gailuetan, eskuzkoetan eta automatizatuetan. Ekipamendu hori tratamenduaren ardura duen organoaren kontrolpean egon daiteke, edo kontratistaren zuzeneko edo zeharkako kontrolpean, edo tratamenduaren ardura duen organoak aldez aurretik eta idatziz berariaz baimendu dituen beste batzuen kontrolpean, eta kontratuaren xedea gauzatzeko esleitutako erabiltzaileek edo horien profilek soilik.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

k) Datu pertsonalak Europako Esparru Ekonomikoaren barruan edo araudi aplikagarrian segurtasun-eremu baliokidetzat jotzen den beste espazioren batean tratatzea, eta ez espazio horretatik kanpo tratatzea, ez zuzenean, ez baimendutako edozein azpikontratistaren bitartez, agiri honetan edo gainerako kontratu-agirietan ezarritakoaren arabera, salbu eta horretara behartuta badago aplikagarri zaion Batasuneko edo estatu kideko zuzenbidearen arabera, edo tratamenduaren ardura duen organoak berariaz hala bideratzen badu.

Baldin eta zuzenbide nazionalaren ondorioz edo Europar Batasuneko zuzenbidearen ondorioz kontratistak nahitaez egin behar badu nazioarteko datu-transferentziaren bat, idatziz emango dio tratamenduaren organo arduradunari legezko betebehar horren berri tratamendua egin baino lehen (behar besteko aurrerapenaz), eta bermatu egingo du tratamenduaren organo arduradunari aplikatzekoak diren legezko betekizun guztiak beteko direla, salbuespena izango dela baldin eta aplikatu behar den zuzenbideak debekatzen badu interes publikoko arrazoi garrantzitsuen ondorioz.

l) Baldin eta bere erantzukizunpekoak diren datu pertsonalen segurtasuna moduren batean urratzen bada eta horren berri badu, berehala eta arretaz jakinarazi beharko dio tratamenduaren organo arduradunari, gehienez 72 orduko epean. Gainera, gorabeheraren inguruko dokumentazioan eta komunikazioan eragina izan dezakeen informazio oro helaraziko dio. Gauza bera egin beharko du baldin eta hutsegiteren bat gertatu bada informazioa tratatu eta kudeatzeko duen sisteman, arriskuan ipintzen badu datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna, edo konfidentzialtasuna urratu ahal izan bada, kontratua betearazi bitartean eskuratutako datu eta informazioak hirugarren pertsonen esku ipintzearen ondorioz, zein interesdun zehatzen konfidentzialtasuna galdu den ere zehaztuz. Hori guztia DBEOren 33. artikuluaren arabera egingo da.

m) Tratamenduaren ardura duen organoari ahalik eta azkarren jakinaraztea interesdunak bere aurrean egikaritzen duen edozein eskubide, hala nola datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea, edo aplikatzekoa den araudian aitortutako beste eskubide batzuk, baldin eta banakako erabaki automatizatuen xede ez badira.

Berehala jakinarazi beharko da hori, eskubidea erabiltzeko eskabidea jaso eta hurrengo lanegunean beranduenez. Jakinarazpenarekin batera, froga bidez identifikatu beharko da eskubidea erabili nahi duen pertsona, eta, hala badagokio, dokumentazioa eta eskabide hori ebazteko garrantzitsua izan litekeen bestelako informazioa ere gehitu beharko da.

Ahal den guztietan, laguntza emango dio tratamenduaren organo arduradunari, dagokiona bete eta eskubidea erabiltzen duen pertsonari erantzun ahal izateko.

n) Tratamenduaren organo arduradunarekin batera egingo du lan segurtasun-neurrien arloan dituzten betebeharrak betetzeko, segurtasun-neurrien arrakalak (lortutakoak eta saiatutakoak) agintaritza eskudunei edo pertsona interesdunei komunikatu eta/edo jakinarazteko eta datu pertsonalen babesaren eta horri buruz agintaritza eskudunei egindako aurretiko kontsulten eragin-ebaluazioak egiteko, eskura duen informazioa eta tratamenduaren izaera kontuan hartuta.

Era berean, tratamenduaren organo arduradunaren esku ipiniko du, hala eskatzen dionean, baldintza-agiri honetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusitako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko behar den informazio guztia, eta lankidetzan arituko da tratamenduaren organo arduradunak, hala badagokio, egingo dituen auditoretza eta ikuskapenetan.

ñ) Idatziz eraman beharko du, baita formatu elektronikoan eta DBEOren 30.5 artikuluan islatutako kasuetan ere, tratamenduaren organo arduradunak egin dituen tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat, eta DBEOren 30.2 artikuluan aipatzen diren inguruabarrak agertu beharko dira gutxienez bertan.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

o) Datu pertsonalak babesteko araudia eta erantzukizun aktiboaren eginbeharra betetzen duela egiaztatzen duten ebidentziak izatea, esaterako betetze-mailaren edo auditoretzen emaitzen aurretiko ziurtagiriak, eta tratamenduaren organo arduradunaren esku ipini hala eskatzen dizkionean. Halaber, kontratua indarrean egon bitartean, tratamenduaren organo arduradunaren esku ipiniko du unean-unean egindako informazio, ziurtapen eta auditoretza oro.

p) Egingo diren datuen tratamenduei buruzko informazioa eman beharko dio tratamenduaren organo arduradunari, biltzeko unean. Datuak biltzen hasi baino lehen, tratamenduaren organo arduradunarekin adostu beharko da nola idatziko den eta zein formatutan emango den informazioa.

29.3.- Azpikontratazioekin lotutako tratamendu azpi-enkarguak.

Kontratuaren arabera azpikontratazioa egin daitekeenean, kontratua betearazteko azpikontratatuko den kontratistak datu pertsonaletarako irispidea izango badu, asmo horren berri eman beharko zaio tratamenduaren organo arduradunari, eta datu pertsonalen nolako tratamendua egingo den identifikatu beharko da, horretarako baimena ematen duen ala ez erabaki ahal izan dezan tratamenduaren organo arduradunak.

Nolanahi ere, bi baldintza hauek nahitaez bete beharko dira tratamenduaren organo arduradunak, hala erabakitzen badu, baimena eman ahal izan dezan:

1. Azpikontratistak egingo duen datu pertsonalen tratamendua bat etorri dadila indarrean diren legeekin, baldintza-agiri honetan ezarritakoarekin eta tratamenduaren organo arduradunak emandako jarraibideekin.
2. Kontratistak eta azpikontratistak datu pertsonalen tratamenduaren enkargu-kontratu bat egin dezatela, baldintza-agiri honetan aurreikusitako zehaztapenak edo murriztaileagoak erabiliz; tratamenduaren organo arduradunaren esku ipiniko da, hala eskatzen duenean, kontratua egin dela ziurtatzeko eta bertako edukia egiaztatzeko.
   Kontratistak aldaketaren bat egin eta beste azpkontratista batzuk sartu edo ordeztu nahi baditu, modu berean jardun beharko du. Bada, tratamenduaren organo arduradunak kontuan izan beharko du elkarrekin lotutako bi baldintzak bete beharko direla, hala badagokio, aldaketa horiek baimendu ahal izan ditzan. Baimenik eman ez dela ondorioztatuko da baldin eta kontratistak ez badu baimenaren jakinarazpenik jasotzen 5 eguneko epean, kontratistak emandako informazioa tratamenduaren organo arduradunak jasotzen duenetik aurrera.

30.- ZIGORRAK

Kontratistak, legeak behartuta, akatsak konpondu beharko ditu eta kalte-galerak ordaindu beharko ditu; gainera, SPKLn edo baldintza orokorren 37. klausulan aurreikusita dagoenaren arabera kontratua suntsiarazi ahal da; hori guztia gorabehera, kontratazio-organoak kontratistari zigorrak ezarri ahal izango dizkio honako arrazoi hauengatik:

30.1.- Arrazoiak eta zenbatekoak.

a) Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 13.1 klausulan azaltzen diren ez-betetzeak: klausula horretan azaltzen diren zenbatekoak.

b) Epe osoa edo epe partzialak betetzean berandutzea: SPKLren 193.3 eta 193.4 artikuluetan azaltzen diren zenbatekoak.

c) Funtsezko kontratu-betebeharrak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **%1 eta %10 artean**, ez betetzearen astuntasunaren arabera eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

d) Kontratuaren klausula espezifikoen 12.1.4 klausulan xedatuta dagoena ez betetzea: gehienez ere azpikontratuaren zenbatekoaren **%50**.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

e) Baldintza orokorren 28.2 klausulan xedatuta dagoena ez betetzea: berandutze-egun bakoitzeko zenbatekoa kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **%0,01** izango da.

f) Eskaintzen bitartez hartu diren eta balorazio-irizpide gisa kontuan hartu diren konpromisoak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **%1 eta %10 artean**, ez betetzearen astuntasunaren arabera eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

g) Kontratuaren klausula espezifikoen 12.2 klausulan azaltzen diren ingurumen, gizarte edo lan arloetako betebeharrak ez betetzea (ondorio horietarako, ulertuko da 12.2.2.1 klausula bete ez dela baldin eta soldatak ordaindu ez badira edo behin eta berriz berandu ordaindu badira edo hitzarmen kolektiboetan ezarrita daudenak baino soldata-baldintza txikiagoak aplikatzea modu astunean eta doloz): kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu **mugatzailearen %0,5 eta %10 artean**, ez betetzearen astuntasunaren arabera eta hala badagokio, errepikapenaren arabera.

h) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzea, plan hori nahitaezkoa denean: berandutze-egun bakoitzeko euro bat kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen 5.000,00 euro bakoitzeko.

i) Sekretu profesionalaren betebeharra ez betetzea eta datu pertsonalak babesteko araudia urratzea: kontratuaren prezioaren **%1 gutxienez, eta %10 gehienez**, ez-betetzearen astuntasunaren arabera, eta hala badagokio, errepikapenaren arabera.

j) 130. artikuluan aurreikusitako subrogazioa jakinarazteko betebeharra ez betetzea: **0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko** atzerapen-egun bakoitzeko BEZik gabe (jakinarazteko betebeharra betetzeko errekerimenduan emandako epea amaitzen den egunetik Aurrera), salbu eta 13. Klausula espezifikoan beste bat xedatu bada.

OHARRA: Zigor hori proposatzen da, baina ez-betetzearen larritasunaren arabera eta, hala badagokio, errepikatzearen arabera, beste bat ezarri ahal izango da.

30.2.- Prozedura.

Zigorren ezarpena kontratazio-organoaren ebazpenaren bitartez erabakiko da, eta jardun hauek egin beharko dira hori erabakitzeko:

a) Zuzendaritza teknikoaren txostena, ikusi diren ez-betetzeak identifikatu eta zigorraren zenbatekoa proposatuz.

b) Kontratistari entzunaldia eman bost (5) egun balioduneko epean, egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan.

c) Kontratazio-organoaren ebazpena.

d) Guztizko edo zatikako ordainketak gauzatzeko kontratistari ordaindu behar zaizkion kopuruetatik kenduz bildu; bestela, aipatutako ordainketetatik kendu ezin badira, eratu den bermetik kenduta bildu.

31.- PREZIOA ORDAINTZEA

Baldintza hauen arabera ordainduko da prezioa:

31.1.- Hornitutako ondasunen ziurtagiria.

31.1.1.- Kontratistak erosketa-unitateari eman beharko dizkio entregatutako ondasunaren edo ondasunen edo errentan emandako ondasun edo ondasunen ziurtagiriak, datu hauek jasota:

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

a) Espedientearen kodea.

b) Kontratistaren izena edo sozietate-izena, eta IFZ.

c) Hornitutako (entregatutako edo errentan emandako) ondasun(ar)en zerrenda balioetsia, itundutako prezioaren edo prezioen arabera (BEZik gabe).

d) Azpikontratistek egindako prestazioen datuak: azpikontratisten izenak, egindako lana, itundu diren eta ordainketa-epearekin zuzeneko zerikusia duten baldintzak.

e) Entregatutako edo errentan emandako ondasunak eman ziren aldia (ziurtagiria partziala bada).

31.1.2.- Epea eta baldintzak.

Epe eta baldintza hauen arabera aurkeztu beharko dira:

a) Prezioaren ordainketa bakarra: ziurtagiri oso bat aurkeztuko da, kontratuaren betearazpena amaitu eta hogeita hamar (30) eguneko epean.

31.2.- Adostasuna eta fakturaren erregistroa.

Kontratuaren arduradunak onetsi beharko du hornitutako ondasunen ziurtagiria, erregistratu eta hogeita hamar (30) eguneko epean, eta egun horretan bertan bidali beharko dio onespen-dokumentuaren kopia bat kontratistari, indarrean den legeriaren arabera dagokion bidea erabiliz.

Onespen-dokumentuaren kopia jaso ondoren, kontratistak faktura aurkeztuko faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarrita dagoenaren arabera, hogeita hamar (30) eguneko epean, ondasunak hornitzen diren egunetik aurrera.

31.3.- Ordainketa.

Hornitutako ondasunen ziurtagiria onetsi eta hogeita hamar (30) eguneko epean ordaindu beharko du botere adjudikatzaileak prezioa. Ordainketa egitean berandutuz gero, berandutze- interesak ordaindu beharko zaizkio kontratistari, aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitzen den egunetik aurrera, bai eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina ere, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

Nolanahi ere, hornitutako ondasunen ziurtagiria(k) eta faktura(k) kontratistak aurkeztu ondoren hasiko da zenbatzen interesak sortzeko epea. Kontratistak ez badu betetzen fakturak administrazio-erregistroan aurkezteko hogeita hamar (30) eguneko epea, interesen sorrera ez da hasiko harik eta hogeita hamar (30) egun igarotzen diren arte, faktura dagokion erregistroan aurkezten den egunetik hasita; betiere, botere adjudikatzaileak ez badu fakturari buruzko onespenik eman, eta ez badu, kasuan kasu, haren ordainketarik egin.

Kontratistak elektronikoki eman eta igorri beharko ditu fakturak, Euskal Autonomia Erkidegoko fakturazio elektronikoaren zerbitzuaren bidez. Fakturak ez dira elektronikoki eman eta igorri beharko fakturaren zenbatekoa (BEZa barne) 5.000,00 eurokoa edo txikiagoa bada, edo faktura horien hartzaileak Euskadik atzerrian dituen ordezkaritzak badira, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Fakturazio Elektronikoaren zerbitzua eta Fakturen Kontularitza Erregistroa arautzen dituen Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2014ko abenduaren 26ko Aginduan. Hala ere, faktura elektronikoa eman eta igorri beharko dute Faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 4. artikuluan aipatutako entitateek, baldin eta faktura Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, haren organismo autonomoei eta partzuergoei egindako zerbitzuengatik edo entregatutako ondasunengatik bada.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

32.- KONTRATUA ALDATZEA

32.1.- Baldintzak.

Kontratua perfekzionatu ondoren, kontratazio-organoak interes publikoko arrazoiengatik soilik aldatu ahal izango du, kontratuaren klausula espezifikoen 16. klausulan eta SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Interes publikoko arrazoitzat jotzen dira indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren jomuga lortzea helburu dutenak.

32.2.- Prozedura.

32.2.1.- Kontratua aldatzeko prozeduraren barruan honako jarduera hauek egin beharko dira betiere:

a) Traktu bakarreko kontratuak eta segidako traktuko kontratuak, argi zehaztuta badago zenbat unitatek osatzen duten kontratuaren objektua:

1. Kontratuaren arduradunaren txostena, aldaketa eskatzen duten interes publikoko arrazoiak zehaztuta, aldaketaren garrantzi kualitatibo eta kuantitatiboa, aldaketaren inguruko gorabeherak eta haien egiaztapen objektiboa.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.

3. Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun balioduneko epean.

4. Entzunaldia proiektuaren edo zehaztapen teknikoen idazleari, baldin eta kontratazio-organokoa ez den hirugarren bat bada, hiru (3) egun balioduneko epean.

5. Txosten juridikoa.

6. Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari egindako jakinarazpena.

7. Aldaketaren iragarkia argitaratzea kontratatzailearen profilean, eta, horrekin batera, kontratistaren alegazioak eta onetsi aurretik bildutako txosten guztiak ere, halakorik balego.

8. Aldaketaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea erregulazio harmonizatuko kontratua bada (salbu eta zerbitzua SPKLren IV. eranskinean jasotako bat bada), eta aldaketa SPKLren 205.2 artikuluko a) eta b) b) letretako kasuetako batengatik egin bada.

b) Unitate-prezioen araberako segidako traktuko kontratuak, kontratua egitean ez bada argi zehaztu guztira zenbat unitatek osatzen duten prestazioa:

1. Kontratuaren arduradunaren txostena, hasieran aurreikusitakoak baino benetako premia handiagoak daudela justifikatzen duena eta haien zenbateko ekonomikoa zehazten duena.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.

3. Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun balioduneko epean.

4. Txosten juridikoa.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

5. Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari egindako jakinarazpena.

6. Aldaketaren iragarkia argitaratzea kontratatzailearen profilean, eta, horrekin batera, kontratistaren alegazioak eta onetsi aurretik bildutako txosten guztiak ere, halakorik balego.

32.2.2.- Jarraian azalduko diren kasu hauetan, gainera, beste jarduera hauek ere egin beharko dira:

1. Kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea aldatzen bada, kontratistak berriro doitu beharko du bermea, ebazpena jakinarazi eta hamabost (15) egun naturaleko epean.

2. Kontrol ekonomiko-fiskalaren aurretiazko fiskalizazio-txostena egitea, indarrean dagoen araudiak hala eskatzen duenean.

3. Gobernu Kontseiluak aldaketa baimendu beharko du bi inguruabar hauek gertatzen direnean:

a) Kontratuaren ordainketa finantza-errentamenduaren sistemaren bidez edo erosteko aukeradun errentamendu-sistema bidez egitea hitzartua duten kontratua denean, lau (4) urteko baino gehiagokoa bada.

b) Aldaketak suntsiarazteko arrazoia bada.

4. Aldaketa AKPAn aurreikusita ez badago, Aholku Batzorde Juridikoaren txostena egin behar beharko da, baldin eta kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea 6.000.000 eurokoa edo gehiagokoa bada, eta aldaketak kontratuaren % 20 baino gehiago aldatzea badakar. Zenbait aldaketa elkarren segidan adosten badira, guztiak kontuan harturik kalkulatuko da ehunekoaren aldaketa.

5. Kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan baldintza jakin batzuk dauzkaten aseguru zehatzen bat eskatu bada eta kontratua aldatu ostean baldintza horiek eta/edo kontratuaren iraupena edo betearazpen-epea aldatzen badira, kontratistak beste aseguru-poliza bat kontratatu beharko du aurrekoaren antzeko estaldura eta kapitalekin, edo lehendik daudenak luzatu beharko ditu, aldatu behar diren ezaugarriak estali ahal izateko, eta hala badagokio, epealdi osagarria ere estaltzeko.

32.2.3.- Betiere, aldaketa SPKLren 153. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera formalizatuko da, eta SPKLren 63. eta 207. artikuluen arabera argitaratuko da.

32.3.- Ondorioak.

Klausula honetan ezarritakoaren arabera adostutako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat. AKPAn aurreikusita ez dagoen aldaketarik egonez gero, SPKLren 206. artikuluan aurreikusita dagoenari jarraituko zaio.

33.- AZPIKONTRATAZIOA

Ez da azpikontrataziotzat joko hirugarren bati hornitu beharreko ondasun bat edo batzuk eskuratzea, fabrikazio-prozesuaren edo hornitu beharreko azken produktuaren parte bada ere. Hornitu beharreko ondasunak entregatzea edo instalatzea azpikontrataziotzat hartzen da, horniketa kontratista ez den beste pertsona fisiko edo juridiko batek egiten duenean.

Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 klausulan azpikontratazioa onartzen bada, prestazioaren zati bat azpikontratatu ahal izango du kontratistak, klausula horretan ezartzen diren mugen barruan eta klausula honetan xedatuta dagoenaren arabera.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Baldin eta kontratistak hirugarrenekin kontratatzen badu kontratuaren zatiren bat, bere gain hartuko du botere adjudikatzailearen aurrean kontratua betearaztearen erantzukizun osoa, baldintza-agiri honetan eta kontratuaren baldintzetan ezarritakoarekin bat etorrita, gizarte- edo lan-betebeharrak betetzea barne hartuta.

33.1.- Kontratuaren arduradunari jakinaraztea.

a) Kontratistak lizitazio-fasean EKABen II. zatiko D atala baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazitako moduan bete badu, eta azpikontratazioa bertan zehatz-mehatz adierazitako baldintzetan egin nahi badu: kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko dio azpikontratista lanak gauzatzen hasi baino gutxienez bost (5) egun baliodun lehenago.

b) Kontratistak lizitazio-fasean EKABen II. zatiko D atala baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazitako moduan bete badu, baina azpikontratazioa EKABen adierazitakoez bestelako baldintzetan egin nahi badu, edo atal hori bete ez badu: kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko dio, azpikontratista lanak gauzatzen hasi baino gutxienez hamabost (15) egun baliodun lehenago.

33.2.- Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzea.

Kontratistak egiaztatu egin beharko du azpikontratistarekin edo hornitzailearekin itundutako ordainketa-baldintzak bete dituela; hain zuzen ere, baldintza horiek SPKLren 216. artikuluan ezarrita dauden mugak errespetatu behar dituzte, baldintza orokorren 28.2 klausulan xedatuta dagoenaren arabera, eta, gainera, azpikontratisten kasuan, baldintza orokorren 31.1.1 klausulako d) letran xedatuta dagoenaren arabera.

34.- KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEEA OSATZEN DUTEN KIDEAK ALDATZEA

34.1.- Kontratua lagatzea.

34.1.1.- Kasuak.

SPKLren 98. artikuluan aurreikusita dauden kontratistaren ondorengotzako kasuei eta SPKLren 69.9 artikuluan aurreikusita dagoen ABEEaren osaeraren aldaketako kasuei kalterik egin gabe, honako kasu hauetan laga ahal izango da kontratua:

1. Kontratista kaudimengabezia egoeran dagoenean, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen 2.2 artikuluaren arabera, eta oraindik ez badu konkurtsoaren deklarazioa eskatu, eta, betiere, ez badute kaudimengabetzat jo beste prozedura batean.

2. Kontratista konkurtso-egoeran deklaratu denean, nahiz eta likidazio-fasea ireki izan edo konkurtsoa deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazi zaion negoziazioak hasi direla birfinantzaketarako akordio bat erdiesteko edo hitzarmen- proposamen aurreratu bati atxikipenak lortzeko akordio bat erdiesteko, konkurtsoari buruzko legerian ezarritako baldintzetan.

3. Kontratista pertsona fisikoa denean eta kontratua amaitu baino lehen erretiroa hartzeko asmoa azaldu duenean.

34.1.2.- Prozedura.

1. Kontratistak idazki bat igorriko dio kontratuaren arduradunari eta, horren bidez, lagatzeko baimena eskatuko dio. Eskaerarekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar du:

- Kontratua lagatzea eskatzeko bidea ematen duen inguruabarra dagoela egiaztatzeko dokumentazioa.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

- Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2 artikuluko c) letran jasotako betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.

3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, kontratuaren zenbatekoaren gutxienez %20 bete behar den ala ez dioena, eta, bete behar izanez gero, betekizun hori betetzen den ala ez dioena. Halaber, SPKLren 214. artikuluko 1. apartatuko bigarren paragrafoan jasota dauden mugak errespetatzen direla azaldu beharko du.

4. Txosten juridikoa.

5. Lagapena formalizatzeko erabiliko den eskritura publikoaren zirriborroa ekartzea kontratistak.

6. Kontratazio-organoaren ebazpena, lagatzeko baimena emateko eta kontratistari jakinarazteko.

7. Kontratua lagatzeko baimena ematen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea kontratatzailearen profilean.

8. Lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

9. Lagapen-hartzaileak bermea gordailutzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

34.1.3.- Baldintzak.

34.1.3.1.- Nolanahi ere, kontratazio-organoak lagapena baimen dezan, baldintza hauek bete behar dira:

1. SPKLren 214. artikuluko 2. apartatuan jasotako betekizunak betetzea.

2. Lagatzailearen (kontratista) ezaugarri tekniko edo pertsonalak arrazoi erabakigarria ez izatea kontratua adjudikatzeko.

3. Lagapenak merkatuan lehiaren murrizketa ez ekartzea.

34.1.3.2.- Ez da baimenduko kontratuaren lagapena egitea baldin eta kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak badira.

34.1.3.3.- Eskritura publikoan formalizatu beharko da kontratistaren (lagatzailea) eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena.

34.1.3.4.- Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

34.2.- ABEEa osatzen duten kideak aldatzea.

34.2.1.- ABEEaren osaeraren aldaketak berekin badakar bertako kideen kopurua handitzea, txikitzea edo kide bat edo batzuk beste batzuekin ordeztea, honela jokatuko da:

1. ABEE kontratistak idazki bat igorriko dio kontratuaren arduradunari eta, horren bidez, aldatzeko baimena eskatuko dio. Eskaerarekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar du:

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

- ABEEaren osaera aldatzeko bidea ematen duten inguruabarren justifikazioa.

- ABEEak, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimen- edo sailkapen-betekizunak betetzen dituela eta ABEEa eratu behar duten guztiek jarduteko gaitasun osoa dutela eta sektore publikoarekin kontratuak egiteko debekurik ez dutela dioten egiaztagiriak.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.

3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, kontratuaren zenbatekoaren gutxienez %20 betearazi dela dioena.

4. Txosten juridikoa.

5. ABEEa osaera berriarekin formalizatzeko erabiliko den eskritura publikoaren zirriborroa ekartzea kontratistak.

6. Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaera aldatzeko eta ABEE kontratistari jakinarazteko baimena ematen duena.

7. ABEEaren osaera aldatzeko baimena ematen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea kontratatzailearen profilean.

8. ABEEa eskritura publikoan formalizatzea.

9. ABEEak beste berme bat gordailutzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. ABEEak lehenago emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta berria formalki eratuta eduki arte.

34.2.2.- ABEEa osatzen duen kide baten edo batzuen bategite, zatiketa nahiz jarduera-adar baten eskualdatzea dela-eta sozietate xurgatzailea, bategitearen emaitza dena, banantzearen onuraduna edo jarduera-adarraren eskuratzailea ez bada ABEE honetako kideetako bat, baldintza orokorren 34.2.1 klausulan azaltzen diren izapideak beteko dira, kontratuaren zenbatekoaren %20 gutxienez betearaztearen baldintza izan ezik.

34.2.3.- ABEEko kideren bat konkurtso-egoeran deklaratzen bada, likidazio-fasea irekita egonda ere, SPKLren 69.9 artikuluko c) letran xedatuta dagoenari jarraituko zaio, bat etorrita SPKLren 212.5 artikuluak kontratua betearazteko beste berme nahiko batzuk emateari buruz xedatzen duenarekin. Kasu horretan, honako jarduketa hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak idazki bat igorriko dio kontratuaren arduradunari, ABEEko kide bat edo batzuk konkurtso-egoeran daudela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera, eskaera hauetakoren bat egiteko:

- Kontratua betearazten jarraitzea gainerako kideekin. Kasu horretan, ABEEak, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimen- edo sailkapen-betekizunak betetzen dituela dioten egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

- Kontratua betearazten jarraitzea ABEEko hasierako kideekin, konkurtso-egoeran daudenak barne.

2. Baldintza orokorren 34.2.1 klausulako 2tik 9ra bitarteko puntuetan (3.enean izan ezik) azaltzen diren izapideak egitea. Eta, kontratazio-organoak ebazten badu ABEEak kide guztiekin jarrai dezala kontratua betearazten (konkurtso-egoeran daudenekin ere), kontratua behar bezala betearazteko besteko berme gehigarri nahikoak eman beharko ditu ABEE kontratistak, hain zuzen ere kontratazio- organoak bere ebazpenean adierazi dituenak.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA

35.- BETETZEA: ENTREGATZEA, HARRERA EGITEA ETA LIKIDATZEA

Kontratistak kontratua bete duela joko da kontratuaren objektua osorik burutzen duenean, kontratuan ezarritakoaren arabera eta botere adjudikatzailea gogobetez; kontratua gauzatzeko, botere adjudikatzaileari entregatuko zaizkio hornidurak.

Aurrekoa egiaztatzeko, harrera- edo adostasun-egintza formal eta positiboa egin beharko du botere adjudikatzaileak, baldintza orokorren 35.2 klausulan adierazten den bezala.

35.1.- Entregatzea.

PTPAn ezarritako zehaztapenei jarraituz eta baldintza orokorren 8. klausulan azaltzen diren epeak betez entregatuko dira kontratuaren objektu diren prestazioak.

PTPAn besterik aurreikusten ez bada, hau izango da entregatzeko data:

- Traktu bakarreko kontratuetan: kontratistak ondasun guztiak kontratuaren arduradunari PTPAn zehaztutako forman eta formatuan entregatzen dizkion eguna.

- Segidako traktuko kontatuetan: kontratuaren iraupen-epe osoa amaitzen den eguna.

35.2.- Harrera egitea.

Betiere, harrera egiten den arte, itundutako baldintzak behar bezala betetzeaz arduratuko da kontratista, baina kontratuaren arduradunak aldeko txostena egin edo hornidura partzialen egiaztapenak onartu arren, ez da inolako inguruabar salbuesle edo eskubiderik sortuko.

Harrera-ekitaldian kontratuaren arduraduna eta kontratistaren ordezkaria egongo dira eta, espedientearen egiaztapen fisikoa egin behar bada, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko ordezkari bat ere bai. Kontratuaren arduradunak egin beharko du ekitaldirako deialdia, eta bost (5) egun baliodun lehenago igorri. Harrera-ekitaldiaren akta egingo da, bi aletan, eta bertaratu diren guztiek sinatu beharko dute akta hori.

Ondasunak ez badaude hartzeko moduan, hala jasoko da harrera-aktan; halaber, kontratuaren arduradunak jarraibide zehatzak emango dizkio kontratistari, ikusitako hutsak zuzen ditzan edo beste hornidura bat egin dezan, itundutakoaren arabera.

Epe hori amaitutakoan, kontratuaren arduradunak bidezkoa dena egiaztatuko du, emandako jarraibideak behar bezala bete direla ziurtatzeko. Jarraibideak bete ez direla ondorioztatzen bada, ikusi diren ez-betetzeak eta/edo akatsak identifikatuko ditu txosten batean, eta kontratistari eta kontratazio-organoari igorriko die; gainera, inguruabarrak kontuan hartuta, jarduketa hauetakoren bat egiteko proposamena ere bidaliko die:

1. Kontratua suntsiarazteko prozedura hastea eta, horrez gain, bermea konfiskatzea eta kontratista behartzea botere adjudikatzaileari kalte eta galerak ordaintzera, konfiskatutako bermearen zenbatekotik gorako kopuruan.

2. Konpontzeko edo beste hornidura bat egiteko beste epe bat ematea eta zigorra ezartzea, gehienez kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen %25.

Kontratistak ez badu horretarako emandako epean konpontzen, kontratua suntsiaraziko da, eta bermea konfiskatu. Halaber, kontratistak kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio botere adjudikatzaileari, konfiskatutako bermearen zenbatekotik gorako kopuruan.

Harrera partzialak egonez gero, harrera bakarrerako ezarritako prozedura bera bete beharko da.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

35.3.- Likidatzea.

Kontratuaren izaerarengatik hala komeni denean eta/edo SPKLren 301.2 artikuluko bigarren paragrafoko aurreikuspena beren-beregi jaso denean kontratuaren klausula espezifikoetan, hogeita hamar (30) eguneko epean, harrera-edo adostasun-akta egiten denetik aurrera, likidazioa egingo dela erabakiko du kontratazio-organoak. Bada, kontratistari jakinaraziko zaio eta, hala badagokio, ordainduko zaio, baldin eta faktura ez bada aurkeztu harrera egin ondoren.

Harrera egin ondoren aurkeztu badu faktura kontratistak, faktura erosketa unitateari aurkeztu zaion egunean hasiko da kontatzen hogeita hamar (30) eguneko epea.

Likidatutako saldoa ordaintzen berandutuz gero, kontratistak eskubidea edukiko du berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasotakoaren arabera.

36.- BERME-EPEA ETA BERMEA ITZULTZEA

36.1.- Kontratistaren betebeharrak.

Kontratuaren harrera egin eta hurrengo egunean hasiko da kontratuaren klausula espezifikoen 15.5 klausulan ezarritako berme-epea. Epe horren barruan, kontratistak nahitaez konpondu beharko ditu, bere kontura, hornitutako ondasunek dituzten akatsak, baldin eta epe horretan halako akatsak daudela ikusi eta idatziz jakinarazi bada. Horrelakoetan, botere adjudikatzaileak kontratistari eskatu ahal izango dio egokiak ez diren ondasunak ordezteko edo, nahikoa bada, konpontzeko.

Kontratistak eskubidea du hornitutako ondasunen aplikazioari buruzko informazioa jasotzeko eta entzuna izateko.

Kontratistari egotz dakizkion akats eta hutsen ondorioz, kontratazio-organoak epe horretan uste badu hornitutako ondasunak ez direla egokiak lortu nahi den helbururako eta, gainera, susmoa badu ondasunok ordeztu edo konpondu arren ez litzatekeela nahikoa izango helburua lortzeko, ondasunak ez onartzea erabaki dezake. Kasu horretan, kontratistaren kontura geratuko dira ondasunak, eta kontratazio-organoa salbuetsita egongo da ordaintzeko beharretik; gainera, hala badagokio, eskubidea izango du ordaindutako prezioa berreskuratzeko.

Berme-epea amaitu eta botere adjudikatzaileak ez badu behar bezala eta garaiz eskatzen akatsak konpontzeko, kontratistak ez du izango inolako erantzukizunik hornitutako ondasunengatik.

36.2.- Bermea itzultzea.

36.2.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 15.5 klausulan berme-eperik ezartzen ez bada, kontratua likidatzeko erabakiaren barruan bermea itzultzeko edo ezerezteko agindua ere jasoko da.

36.2.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 15.5 klausulan berme-epea ezartzen bada, honako hau egingo da epe hori amaitu ondoren:

a) Berme-epean erreklamaziorik egin ez bada behar bezala eta garaiz, edo erreklamazioak egin arren konpondu badira: kontratazio-organoak ebazpena emango du eta, horren bidez, bermea itzultzeko edo ezerezteko aginduko du.

Berme-epea amaitu eta gehienez bi (2) hilabeteko epean emango da ebazpena, eta kontratistari jakinarazi. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari edo dagokion botere adjudikatzailearen organo baliokideari ere jakinarazi zaio.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

b) Berme-epean erreklamazioak egin badira, behar bezala eta garaiz, baina kontratistak horiek konpondu ez baditu: kontratuaren arduradunak bidezkoak diren jarraibideak emango dizkio kontratistari, ondasunak ordeztu ditzan edo, nahikoa dela uste badu, konpon ditzan. Epe bat emango dio horretarako. Epe horretan, kontratistak nahitaez bete beharko ditu eman zaizkion jarraibideak, baina ez du inolako diru-kopururik jasoko berme-epea luzatzeagatik.

Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren arduradunak emandako epean ezarritako jarraibideak, behin betiko bermea konfiskatu egingo da. Behin betiko bermea nahikoa ez bada, premiamenduzko administrazio-prozeduraz kobratuko da aldea, diru-bilketarako arauetan ezarritakoarekin bat etorriz.

36.2.3.- Kontratuaren klausula espezifikoen 8.5 klausularen arabera onartzen bada bermearen zati proportzionala itzuli edo ezereztea, baldintza orokorren 36.1 eta 36.2 klausuletan ezarrita dagoenaren arabera jokatuko da. Berme-epea ezarri bada, harrera partziala egin eta hurrengo egunean hasiko da.

36.2.4.- Kontratua amaitzeko epea amaitu, berme-epea amaituta, eta, enpresa kontratistari egotzi ezin zaizkion zergatiengatik, urtebete (1) igarota ez bada harrera-egintza formalik ez likidaziorik izan, bermeak itzuliko zaizkio kontratistari, edo ezereztu egingo da, beste luzapenik gabe, SPKLren 110. artikuluan aipatutako erantzukizunak argitu ondoren.

Aurreko paragrafoan adierazitako urtebeteko (1) epea sei (6) hilabeteko bilakatuko da kasu hauetan:

a) Kontratuaren balio zenbatetsia 100.000 eurotik beherakoa denean.

b) Kontratistak enpresa txiki edo ertainen betekizunak betetzen baditu –Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz laguntza-kategoria batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan I. eranskinean ezarritakoaren arabera– eta betekizun horiek betetzen ez dituen beste enpresaren batek zuzenean edo zeharka kontrolatzen ez baditu.

37.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

SPKLren 211. eta 306. artikuluetan eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 17. klausulan jasotzen direnez gain, honako hauek izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak:

a) Botere adjudikatzaileak dituen zuzendaritza- eta ikuskaritza-eskumenak eragoztea.

b) Kontratistak konfidentzialtasuna errespetatzeko duen betebeharra ez betetzea.

c) ABEEaren kasuan, kideetako bat SPKLren 211. a) eta b) artikuluko kasuan sartuta dagoenean, Administrazioak ahalmena izango du aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten gainerako enpresei kontratu-betebeharrak betetzeko eskatzeko edo kontratua suntsiarazteko.

OHARRA: Interes-gatazkarik ez dagoela adierazteko betebeharra funtsezkotzat jo daiteke. Hala balitz, kasu horretan bakarrik erabaki daiteke kontratua suntsiaraztea, HEZINEa ez betetzeagatik. Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak, PRTR funtsekin finantzatutako espedienteetan sartu beharreko alderdiei buruzko 2021eko abenduaren 23ko instrukzioan, honako hau zehazten du: "Kontratua suntsiarazteak atzerapen handia ekar dezakeenez, eta (...) kontratu motak epe mugatu batean amaituta egon behar duenez, arrazoi horrengatik suntsiarazteko kausa bat sartuko da soilik atzerapen horrek, ikuspuntu horretatik, erakunde kontratatzaileari kalte nabarmenik eragiten ez dion salbuespenezko kasuetan" (2.II.d paragrafoa).

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

VII.- INZIDENTZIAK ETA EGINTZAK BERRIKUSTEA

38.- INZIDENTZIAK

38.1.- Kontratazio-organoaren prerrogatibak.

Kontratazio-organoak ebatziko ditu administrazio-kontratuak interpretatzeari, betetzearen inguruko zalantzei, aldaketak egiteari, kontratua betearaztearen ondorioz kontratistari egotzi ahal zaion erantzukizuna deklaratzeari, betearazpena eteteari, suntsiarazteari eta suntsiarazpenaren ondorioei buruz gertatzen diren auziak. Kontratazio-organoaren ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute, eta, ebazpen horien kontra, aukerako berraztertze- errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio hari hilabete bateko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

38.2.- Prozedura.

Kasu zehatzetarako baldintza-agiri honetan eta sektore publikoaren kontratuen araudian ezarrita dagoena bazter utzita, botere adjudikatzailearen eta kontratistaren artean kontratua betearazteari eta azkentzeari buruz sortzen diren gorabehera guztiak espediente kontraesankorraren bitartez izapidetuko dira; espediente horren barruan honako jarduketa hauek egingo dira:

a) Botere adjudikatzailearen proposamena edo kontratistaren eskaera.

b) Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun balioduneko epean. Kontratua suntziarazten denean, entzunaldia kontratistari, hamar (10) egun balioduneko epean izango da, betiere kontratuaren suntzipena kontratazio-organoak ofizioz adostu duenean.

c) Aholkularitza juridikoaren txostena, hala badagokio.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, hala badagokio.

e) Kontratazio-organoaren ebazpen arrazoitua eta kontratistari egindako jakinarazpena.

Interes publikoko arrazoiek justifikatu ezean edo gorabeheren izaerak hala eskatu ezean, prozedura hau izapidetzeak ez du kontratua geldiaraztea ekarriko.

39.- EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA

SPKLren 44.1 klausulan jasota ez dauden kontratuei buruzko egintzen aurka Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112, 121 eta 123. artikuluetan aurreikusita dauden errekurtso arruntak aurkeztu ahal izango dira.

Kontratuari kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal bazaio, honako arau berezi hauek aplikatuko dira, Abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 58. artikulua:

a) Kontratazio-organoak ezin izango du kontratua formalizatu, harik eta hamar egun natural igaro arte kontratuaren esleipen-ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik. Kasu horretan bertan, kontratazio-arloko errekurtso berezia aurkezteko epea, hala dagokionean, hamar egun naturalekoa izango da, eta SPKLren 50.1 artikuluan ezarritako moduan zenbatuko da.

b) Errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak beren-beregi adierazi beharko du, errekurtsoa jarri eta bost egun balioduneko epean, SPKLn ezarritako onartezintasun-arrazoiren bat dagoela eta hartutako kautela-neurriak mantentzen direla, etete automatikoko kasuak barne.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

LABURPEN-KOADROA

I. KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKO JAKIN BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA.

☒	I.1.ERANSKINA	LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA KALKULATZEA: KOSTUAK ETA BESTELAKO GASTUAK

ESKAINTZAN AURKEZTU

II. "A" GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOAK.

☒	II.0.ERANSKINA	DATU PERTSONALAK
☒	II.1.ERANSKINA	EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB) OSATZEKO JARRAIBIDEAK
☒	II.2.ERASNKINA	BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO KONPROMISOA
☒	II.3.ERANSKINA	ESKAINTZAN BILDUTAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL IZENDATZEA
☒	II.4.ERANSKINA	ABEEa FORMALKI ERATZEKO KONPROMISOA
☒	II.5.ERANSKINA	ENPRESA-TALDE BEREKO ENPRESAK
☒	II.6.ERANSKINA	ESKAINTZA ZEIN SORTATARAKO AURKEZTEN DUEN: SORTA-KONBINAZIOA

Baldin eta izapideak egiteko bitartekoak "elektronikoak ez" badira:

☒	II.7.ERANSKINA	JAKINARAZPEN ETA NOTIFIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

III. "B" GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOAK.

☒	III.1.ERANSKINA	ESKAINTZA EKONOMIKOA

IV. "C" GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOAK.

☒	IV.1.ERANSKINA	FITXA TEKNIKOA AURKEZTEKO EREDUA
☒	IV.2.ERANSKINA	HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO HEZKUNTZA PRINTZIPIOAK

V. ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKOAK.

☒	V.1.ERANSKINA	KONTRATUAREN INDARRALDI OSOAN ESKURA IZATEA BESTE ENTITATE BATZUEN KAUDIMENA ETA BALIABIDEAK
☒	V.2.ERANSKINA	SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ IZATEA
☒	V.3.ERANSKINA	INTERES GATAZKARIK EZAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (IGEA)
☒	V.4.ERANSKINA	ZERBITZARIEN ETA HORIEI LOTUTAKO ZERBITZUEN KOKAPENARI BURUZKO ADIERAZPENA

VI. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

☒	VI.1.ERANSKINA	DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

I.1.ERANSKINA- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA KALKULATZEA: KOSTUAK ETA BESTELAKO GASTUAK

Erreferentzia 003/2024 espediente-zenbakia duen kontratuaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko, kostu eta gastu hauek hartu dira kontuan:

SALMENTA KOSTUAK	80,17%	48.102,00 €
EGITURA KOSTUAL	16,08%	9.648,00 €
MOZKIN INDUSTRIALA	3,75%	2.250,00 €
GUZTIRA(BEZ GABE)	**100,00%**	**60.000,00 €**
BEZ	21%	12.600,00 €
GUZTIRA (BEZ-AREKIN)		**72.600,00 €**

Zehazki, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, aurreko 48 hilabeteetan esleitutako antzeko kontratuen benetako balioa hartu da kontuan. Balio hori zuzendu egin da, gerta litezkeen kopuru- edo balio-aldaketak kontuan hartzeko, kontratuaren iraupen osoan zenbatuta.

Banakatze zuzena zenbatesteko, Espainiako Bankuaren Balantze Zentralaren datu-baseetan jasotako datu estatistikoak hartu dira kontuan (sozietate ez-finantzarioen ratio sektorialak).

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

II.0.ERANSKINA- DATU PERTSONALAK

[1] Nik.....jaunak/andereak (NAN:.....), nire izenean edo (operadore ekonomikoa) operadore ekonomikoaren ordezkaritzan (IFZ:..... operadore ekonomikoarena), ... zenbakiko espedienteari dagokionez, 003/24 espediente-zenbakia duen kontratuaren adjudikazio-prozedurari dagokionez,

HAU DEKLARATZEN DUT:

1.- Ni, erantzukizunpeko deklarazio hau sinatu dudan hau, naizela eskaintza aurkezten duen pertsona, entitate edo enpresaren ordezkaria.

2.- Erantzukizunpeko deklarazio hau aurkeztu dudala, bertan bildutako datu pertsonalak barne, datu pertsonal horiek ez daitezen aldi berean agertu nahitaez aurkeztu eta sinatu behar diren administrazio-klausula partikularren agiriko gainerako eranskinetan. Horrela, bete egingo dira datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak.

.....(e)n, 2024ko .....(a)ren.....(e)(a)n.

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko oinarrizko informazioa.
Behar bezala betetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta datu-babesaren alorrean indarrean dagoen gainerako araudia, jakinarazten da datu pertsonalak tratamendu-jarduera honen barruan sartuko direla: «**Kontratazioaren kudeaketa**»:

1. **Arduraduna:** Dagokion kontratazio-organoa.
2. **Helburua**: kontratazio publikoaren prozeduraren kudeaketa, fase guztietan, betearazpena, aldaketak, luzapenak, epe- edo prezio- aldaketak, azken zenbatekoa eta iraungipena barne hartuta, baita adjudikazio-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakiak eta kontratistari egotzi ahal zaizkion eta kontratua suntsiaraztea eragin duten gorabeherak ere.
3. **Legitimazioa**: tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat betearazteko eta tratamenduaren organo arduradunari aplikagarria zaion lege-betebeharra betetzeko.
4. **Hartzaileak**: Interes legitimoa dutenei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.
5. **Eskubideak:** Eskubidea duzu zure datuetarako irispidea izateko, datu horiek zuzentzeko eta ezabatzeko edo datuen tratamendua mugatu edo haren aurka egiteko.

INFORMAZIO ZABALAGOA VII.1 ERANSKINEAN: «DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA»

[1] Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariek sinatu beharko dute deklarazio hau.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

II.1.ERANSKINA- KONTRATAZIOARI BURUZKO EUROPAKO DOKUMENTU BAKARRA (EKAB). OSATZEKO JARRAIBIDEAK.

Erantzukizunpeko adierazpenari buruzko Eranskina Europako Kontratazio Agiri Bakarra izeneko eredu normalizatuaren bidez bete ahal izateko, lizitazio-iragarkiaren "Xedea" fitxan dagoen ***"EKAB laguntza-eskuliburua"*** dokumentuan adierazitako urratsak jarraitu beharko dira. Urrats horiek eranskin honetan laburbiltzen dira:

1.- DEUC.xml fitxategia deskargatu zure ekipoan, zeina eskuragarri dagoen Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman - lizitazio honetako Xede fitxan.

2.- EKAB fitxategiaren estekan klik egin eta fitxategia deskargatu.

3.- "EKAB lineako zerbitzua" fitxaren estekan klik egin.

4.- "Operadore ekonomikoa naiz" aukera hautatu.

5.- "EKAB bat inportatu" aukera hautatu.

6.- DEUC.xml fitxategia kargatzea, ekipoan deskargatuta.

7.- Herrialdea hautatu eta "hurrengoa" sakatu.

8.- EKAB agirian dagozkion atalak betetzea.

9.- Dokumentua inprimatzea eta sinatzea.

10.- Dokumentu hori, behar bezala beteta eta sinatuta, lizitazioaren gainerako agiriekin batera aurkeztu beharko da, deialdia arautzen duten agirietan ezarritakoaren arabera eta bertan ezarritako epearen barruan.

11.- Zenbait lote dituen kontratua bada, lizitatzen duen lote bakoitzerako adierazpen bat bete beharko da.

12.- ABEEetan multzokatutako lizitazioan parte hartzen denean, ABEEa osatzen duten enpresa bakoitzeko dokumentu bat bete beharko da.

